

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Udazkenean begi bat jarrita

RAMON SOLA > 11

MARWANE AZERGUI: Tolosaldean
Batxilergoa euskaraz atera duen
lehen ikasle marokoarra > 22

2014ko ekainaren 28a | VIII. urtea • 371. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HORMAK HAUTSI ETA KOLOREZTATZEKO ALDARRIA > 4/12

Marisol RAMIREZ | ARGAKZI PRESS

Homosexualen egoera Palestina okupatuan 04

Helena Costa, futbol entrenatzaile baten bazterketa 09

e.lkarrizketa: Javi Larrauri, artista eta dokumentalista 12

Francisen hilketak eta EHGA Men hasiera 16

Mikel Martinez astroargazkilariak ateratako argazkia NASAn 18

«Izan nahi dut», Marwane Azerguiren istorioa 22

Gaztedi Dantzari taldearen estreinaldia Zuberoan 26

In Fraganti: Igor Arregi 28



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Mundu mailako bestelako potentzien haginkadak
 07 **Koldo Sagasti:** Noa? Ni ez noa!
 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Arkitektura kriminala
 11 **Ramon Sola:** Udazkenean begi bat jarrita
 20 **Gorka Zozaia:** Nor maite du Eugenek?
 21 **Garazi Goia:** Oreka
 25 **Amaia Agirre:** Ar-emeka
 29 **Galder Gonzalez:** «Pozikitivity? Negartibity»
 31 **Mikel Olasagasti:** Berrikuntza beldurgarriak



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

KULTURAREN ERKUNTZA ERKUNTZA
GIZKUTZAREN ERKUNTZA ERKUNTZA

{ datorrena } Iñaki Soto

Mundu mailako bestelako potentzien haginkadak

Aurrera egin ahal izateko «*a mordiscos y a patadas*» ibili badira ere, Uruguai futboleko Brasilgo Munduko Kopako hurrengo fasera igaro da. Brasil eta Argentina bezalako bi erraldoiren erdian kokatutako hiru milioiko herrialde batek honelako txapelketa batean aurrera egitea mirakulua da, edonondik begiratuta ere. Uruguai potentzia bat da, ez soilik futbolean, ordea. Izan ere, ez nator ni, inondik inora, futbolaz hitz egitera. Munduko Kopa jokatzeko ari den bitartean Uruguai politikoa eta bizitza publikoa eten egiten dira eta bertakoak oso kontziente dira futbolagatik sentitzen duten pasioa ezohikoa dela. «Futbolaren ateok» ere onartzen dute.

Ez dakit, ordea, zer puntutaraino diren kontziente futbolean bezala demokraziaren ikuspuntutik ere Uruguai mundu mailako potentzia dela. Nire bizitzan zehar eza-gutu ditudan herrialde guztietatik Uruguai da, zalantzarik gabe, bisitatu dudana herrialderik demokratikoenena. Beren gertuko historiari begiratuta, gezurra dirudi dela gutxi herrialdea diktadura zital baten mende egon izana. Kultura demokratikoa oso garatua dago eta Estatua bera horren berme da (ikusi <http://goo.gl/xyOyl9>). Orokorrean, bertakoak hain dira baketsuak Luis Suarezren suminaldiak ere arraro egiten zaizkidala.

KRITIKEN DIMENTSIOA

Brasil aipatu dudanez, gure artean nahiko ezezaguna den baina aurrerantzean garrantzi handia izango duen erraldoiari buruzko aipamena egin nahi dut. Munduko Koparen aurretik Rousseffen Gobernuak jasan dituen kritikei PT Langileen Alderdiak emandako erantzuna bildu zuen Beñat Zarrabeitiak GARA argitaratutako artikulu batean (<http://goo.gl/G2gOr6>). Erantzuna bereziki egokia iruditu zitzaidan, bere programa eraldatzailea aurrera eramateko PT izaten ari den arazoetatik abiatzen zelako, besteak beste.

Hego Amerikako indar iraultzaile eta aurrerakoiek kezka handiz ikusten dute Brasilgo Gobernuaren alde batetik eta bestetik jasotzen ari den jazarpena. Hainbaten ustez, kontinenteko herrialde desberdinen aurka burutzen ari diren «kolpe leunen» segidaren amaieran Brasil dago. Alegia, indar inperialistek Venezuelaren, Ekuadorren, Bo-

livaren edota Argentinaren aurka darabiltzaten manio-bra politiko-ekonomiko-militarren atzean, interes eta obsesio partikularrez harago, eskualdeko buru den herrialdearen boterea eta potentzialtasuna murrizteko go-go dago. Ikuspuntu horretatik, dimentsioagatik eta kokapenagatik, herrialde emergenteen artean politikoki arrisku gehien duen herrialdea litzateke Brasil.

Ezkerretik, ordea, Brasil kritiken iturri izan da beti. Munduko Kopa utzi dituen irudi tamalgarri batzuek harago –Poliziak manifestarien aurka espraiak erabiliz egindako oldarraldiek, adibidez, min handia egiten diote bertako Gobernuari, are gehiago erasoon aurrean erantzun instituzionalik ez dagoenean eta erantzukizunak onartzen ez direnean–, Mendebaldetik egiten zaizkion kritika horietatik batzuk erabat justuak ez direla uste dut. Izan ere, kritika horien oinarrian Brasilek dituen desberdintasun sozialak egoten dira beti. Hori egitea bada ere, des-

Brasil eta Uruguai konparatuz gero, argi dago dimentsioa elementu garrantzitsua dela bai politikak aurrera ateratzeko orduan bai hauek ebaluatzeko garaian. Guk ere kontuan hartu beharko genuke

berdintasun horiek txikitu egin dira Lula Gobernura sartu zenetik, eta, bitartean, Mendebaldeko herrialde gehienetan desberdintasun horiek areagotu besterik ez dira egin. Alor horretan mendebaldar ezkertiarrok ez gaude, ez, inori lezioak emateko moduan. Hartara, kritikak zilegi izan daitezke, baina umiltasun iraultzailetik eta zintotasun intelektualetik abiatu egin behar dira beti.

Brasil eta Uruguai konparatuz gero, argi dago dimentsioa elementu oso garrantzitsua dela bai politikak aurrera ateratzeko orduan bai hauek ebaluatzeko garaian. Herrialde txiki gisa, nazioartera eredu eta irakaspen bila ateratzerakoan, oso kontuan hartu beharko genuke hori. Adibidez, iraultza demokratikoa aurrera atera nahi badugu, Uruguaira begira jarri behar dugula uste dut. Aurrera egiteko, jakina, «*a mordiscos y a patadas*» ere ibili beharko gara. Ez dadila, ordea, gure artean izan, arren. •

LURRALDE OKUPATUAK

Palestinar homosexualak nazka-nazka eginda dauzkaten zortzi galderak

 **GIZARTEA /** Ghaith Hilal - The Electronic Intifada

Ghaith Hilal Palestinako Al-Qaws elkarteko ekintzaileak herrialde okupatuetako LGBT lesbiana, gay, bisexual eta transexualen komunitateen egoera eta Mendebaldeko gizarteetako alderatzerik ez dagoela nabarmentzen du, «Apartheidaren Hormak arrosa koloreko ate distiratsuak» ez dituelako. Okupazioa da beraien arazo nagusia.

Al-Qaws bezalako Palestinako ekintzaile homosexualen talde baten helbururik garrantzitsuenak gizarteko sexu eta genero hierarkiak desagitea dela pentsa daiteke. Bukaezina dirudien lana alegia. Horrela da, bai. Baina gure hitzaldi eta ekitaldietan behin eta berriz egiten dizkigu-

ten galderak entzunda kontrako pentsa daiteke. Edo hedabideek eta nazioarteko beste erakundeek egiten dizkiguten kontsultak entzunda. Gure asmoa galdera eta kontsulta horiekin behin betikoz bukatzea da. Ez da gure ardura herritarrek beren pribilegioen inguruan hezte. Baina lan hori utzi eta formalki erretiroa hartu baino lehen, hemen doazkizue

Homosexualak ezkutuan bizi behar izaten dute herrialde musulman gehienetan, baita Palestinan ere. Irudikoa Ramallah hirian egindako pintada bat da. GAUR8

maizen jasotzen ditugun galderak eta behin betiko erantzunak.

1.- ISRAEL EZ AL DA PALESTINAR HOMOSEXUALENTZAT BABESLEKU SEGURUA?

Jakina! Nola ez bada! Apartheidaren Hormak arrosa koloreko ate distiratsuak ditu, jarrera edo pose bikaina duen edonor hartzeko prest. Izan ere, Israelek eraiki zuen horma palestinar homofoboak barruan edukitzeko, eta palestinar homosexualak babesteko...

Orain, seriooki: Israelek iheslariak sortzen ditu, ez die babesik ematen. Beren lurretatik indarra erabilita ihes egitera (batzuetan etxekoren bat erailda edo kargurik gabe kartzelan sartuta) behartutako familien ondorengo bakar batek ere ez du lortu oraindik historia hori gainditu eta Israelen babesa aurkitzea, hau da, gehiegikeriok egin zituen Estatuan. Horma zeharkatu eta Tel Avivera iristea lortzen duten palestinarrek legez kontraktatzat jotzen dituzte, baita homosexualak badira ere! Baldintza negargarrietan lan egin eta bizitzen bukatzen dute, atxilotoketa noiz iritsiko zain.

2.- EZ AL DIRA HOMOFOBO PALESTINAR GUZTIAK?

Homofoboak al dira estatubatuar guztiak? Ez noski. Tamalez, Mendebaldeko herritarrek palestinarrei buruz duten irudiak, batez ere palestinar LGBT lesbiana, gay, bisexual eta transexualen buruz dutenak, palestinar gizartearen aniztasuna ahazteko joera izaten du.

Hori esanda, erantsi behar dugu urte asko dituen okupazio militar baten mendean bizi direla palestinarrek. Gizarte guztiek izaten dituzten zapalkuntza modu ezberdinak handitu egiten ditu okupazioak. Hala ere, gure borroka ez dugu homofobiaren markoan kokatzen. Iparraldeko herrietan sortutako aktibismo jakin batetik datorren ideia da hori. Genero desadostasuna adierazten duten pertsonak eta emakumeak zapaltzen dituen errepresio sistema konplexu batetik (patriarkatutik), nola bereizi homofobia?





3. NOLA BORROKATZEN DUZUE ZUEN ETSAI NAGUSI ISLAMAREN AURKA?

Hara! Etsai nagusi bat al dugu orain? Etsai nagusiren bat nabarmendu behar izanez gero, okupazioa aipatuko genuke, ez erlijioa; ez islama, ezta bestelako erlijiorik ere.

Gaur egun erlijioaren erarik fundamentalistenak berpizten ari dira bazter guztietan, baita Mendebaldeko gizarte askotan ere. Erlijioa ez daukagu gure erronka nagusitzat, ez da hori gure ezaugarria. Edonola ere, sentimendu erlijiosoak gora egin izanak, edozein erlijio izanik ere, kasu gehienetan genero eta sexu aniztasunaren errespetua bultzatu nahi duten pertsonen otopoak baino ez die eragiten.

Palestinar nazionalismoak laiotasuna errespetatu izan du be-

re historian zehar. Horrek balore kultural baliagarriak eskaintzen ditu LGBT palestinarrek babesteko. Bestalde, erlijioa kasu askotan palestinar lesbiana, gay, bisexual eta transexualen nortasunaren zati garrantzitsu bat izaten da. Guk komunitate nortasun guztiak errespetatzen ditugu eta aniztasunerako espazioak eraikitzen ditugu.

4.- «ARMAIRUTIK ATERATAKO» PALESTINARRIK BA AL DA?

Galdera horrek asko pozten nau. Maritxuentsat propio sortutako armairu sinestezinak egiten dituzten gay palestinar arotz bikainak ditugu; Mendebaldean eskatzen dituzuen erosotasun guztiak dituzte gure armairuek. Ez dugu armairutik atera nahi!

Beste behin, «armairutik ateratzeko» ideia, ikusgaitasun politika alegia, Iparraldeko herrietako LGBT ekintzaile batzuek hartutako estrategia bat besterik ez da, baldintza jakin batzuen eraginez hartutako estrategia. Estrategia hori mundu

Tel Aviven ekainaren 13an egindako desfileko irudia. Bakearen aldeko ikurrak Daviden izarrarekin batera erakusten dituzte Israelgo homosexualak, hasiera batean bateraezinak diruditen arren.

Jack GUEZ | AFP

Horma zeharkatu eta Tel Avivera iristea lortzen duten palestinarrek legez kontraktatzat jotzen dituzte, baita homosexualak badira ere! Baldintza negargarrietan bizitzen bukatzen dute

Homofoboak al dira estatubatuar guztiak? Ez noski. Tamalez, Mendebaldean palestinarrei buruz duten irudiak palestinar gizartearen aniztasuna ahazteko joera izaten du

osoari ezarri nahi izatea, testuinguruari jaramonik egin gabe, proiektu kolonial bat besterik ez da. Hori galdetu beharrean, gure testuinguruan gizartea aldatzeko zein estrategia dugun galdetu. Edo «armairutik ateratzeko» ideia horrek guretzat zentzurik ba ote duen.

5.- ZERGATIK EZ DAGO ISRAELDARRIK AL-QAWS ELKARTEAN?

Kolonialismoak ez dauka zerikusirik beste gizakiekin gaizki portatzen diren pertsona gaiztoekin. Kontua ez da israeldar gaiztoek palestinar homosexualen janaria erosteko dirua lapurtzen dutela. Ikaragarri «zintzo» izanda ere, errepresio sistemak ez dira besterik gabe sorginke-riaz desagertzen. Okupazioak



Homofobiaren aurkako mezuak Bangladesheko elkarte batek plazaratutako txartelean. GAUR8

EZKUTUAN BIZITZERA BEHARTUTAKOEN EKIMENAK HERRIALDE MUSULMANETAN

Sexu askatasunaren aldeko borrokak oso ezaugarri ezberdinak ditu munduan zehar. Mendebaldeko herrialdeetan desfile ikusgarriak ikustera ohituta gaude, baina antzeko zerbait egitea pentsaezina da beste leku askotan. Herrialde musulman gehienetan, esaterako. Turkia litzateke salbuespena, Istanbulen Istiklal kalean pasa den igandean Trans Harrotasun Desfilea egin baitzuten: milaka pertsona kalean, gizonak gizonak musukatzen, emakumeak emakumeak besarkatzen, ortzadarraren koloreak zituzten banderak bazter guztietan...

Oso bestelako egoera dute gaur egun Marokon, nahiz eta 2011ko udaberriko protesten eraginez Mohamed VI.a erregeak proposatutako konstituzio berriak giza eskubideen alorrean zenbait aurrerapauso ekarri. Baina homosexualen eskubideak alde batera utzi zituen arau berriak. Aswat elkarteak ekintzaileen kalkuluen arabera, Kode Penaleko 489. artikulua eraginez egunean lau pertsona espetxeratzeko dituzte herrialdean (sexu bereko pertsona batekin «naturaren kontrako ekintza lizunak» eginez gero hiru urteko kartzela zigorra ezar dezakete).

Homofobia instituzional horrek gizartearen intolerantzia indartzen du eta gutxiengo sexualen aurkako bortizkeriak gora egiten du. Emaizta da, Aswat arabera, gutxiengo horiek ezkutatu egiten direla. Horregatik artista, idazle eta ekintzaile ezagunek beren aurpegia ipini dute #Love_is_not_a_crime kanpainan, homosexualak ezin dute-eta.

Bangladeshen ere sexu bereko pertsonen arteko harremanak legez kontrakoak dira. Bertako “Roopbaan” aldizkariak «laguntasunaren eta aniztasunaren ospakizuna» izeneko desfilea antolatu zuen Bangladesheko Urteberri Egunean, apirilaren 14an alegia. Mongol Shobhajatra izeneko prozesio koloretsua Dhakako Unibertsitatetik irteten zenean, ortzadarraren koloreekin jantzitako lagunek bat egin zuten prozesioarekin, ezkutuan bizi behar izaten duen komunitatea ordezkatzeko. Ikusleek ez zuten jakin sexu askatasunaren aldeko ekimena zela, hedabideek horren berri eman zuten arte. Ondoren sare sozialetan mehatxuak eta aurkako mezu ugari jaso zituzte parte hartzaileek, baina mobilizazio haren balioa eta ausardia ere goraipatu zuten begirale batzuek.

ezarritako mugen barruan egiten du lan gure elkarteak palestinar gizartearen. Israelgo lesbiana, gay, bisexual eta transexualak dituzten erronkek ez dute zerikusirik guk ditugunekin. Oso gizarte ezberdinak dira, kultura eta historia ezberdinak dituztenak. Beraiek gure lurak okupatuta izateak ez gaitu gizarte bakar bihurtzen.

Bestalde, homosexual izateak ez du ezabatzen kolonizatzailerik eta kolonizatuaren arteko botere dinamika, asmo onenak izanda ere. Ez dugu gustuko «familia gay globala, arrosa eta zoriontsuaren» sentimendua. Palestinarrek garenaz, kolonizazioarekin amaitzeko eta palestinar gizartearen hobetzeko geure artean antolatzea ezinbestekoa da.

6.- “INVISIBLE MEN, BUBBLE AND OUT IN THE DARK” (GIZON IKUSEZINAK, BURBUILA ETA ILUNPETAN KANPOAN) PALESTINAR HOMOSEXUALEI BURUZKO PELIKULA IKUSI DUT ETA ZUEN BORROKAREN INGURUAN ASKO IKASI NUELAKOAN NAGO.

Zinemagile israeldar edo judu pribilegiatuak egindako pelikula horiez ari al zara? Israeldar zuriak salbatzaile eta palestinarrrak salbatu beharreko biktimak moduan margotzen dituzten pelikula horiez? Film horiek palestinar homosexualen ahotsa eta irudia desitxuratzen dituzte, beren gizartetik salbatu beharreko biktimak moduan aurkeztuta. Arabiar gizonak arriskutsu eta aldakorrek direla dioen ideia arrazistan oinarrituta daude lan horiek. Israelgo gobernuak ordaindutako *pinkwashing* propaganda baino ez dira (ingelesezko «arrosa» eta «garbitu» hitze-

kin sortutako akronimo bat da eta Israelek nazioartean bere burua garbitzeko erabiltzen duen estrategia aipatzeko erabiltzen da), zapaltzailearen eta zapalduaren arteko maitasun istorio hunkigarri batekin apainduta. Gure komunitatearen eta gure borrokaren berri izan nahi duenak, palestinar homosexualok geure webguneetan esaten dugunari erreparatu behar dio, esaterako, Al-Qaws (Alqaws.org) eta Palestinian Queers for BDS (Pqbds.com) bezalako taldeen webguneetara.

7.- HOMOSEXUALEN ESKUBIDEEN ALDE JARDUTEA EZ AL DA “PINKWASHING”-A BAINO PREMIAZKOAGOA?

Iparraldeko herrietako LGBT talde nagusiek homosexualak aparteko mundu batean bizi direla sinestarazi nahi digute, beren gizarteekin homofobiaren biktimak moduan baino loturarik ez dutenak. Baina askapen homosexualak ezin da lortu *apartheid*-a, patriarkatua, kapitalismoa eta beste zapalkuntza modu batzuk bizirik dauden bitartean. Garrantzia handia dauka indar zapaltzaile horien arteko loturak aztertzeak.

Gainera, *pinkwashing*-a “Israel Marka” kanpainak munduko beste lekuetako homosexualen babesa lortzeko erabilitako estrategia bat da. Pertsona homosexualentzat proiektu sionista erakargarriagoa izan dadin ahalegin bat besterik ez da. Kolonizatzailerik oso maiz izaten duten amets toxiko bat adierazteko beste modu bat da: kolonizatuak bere kasa lortu ezin duen gauza beharrezko eta garrantzitsuren bat kolonizatzailerik eman diezaioke.

Erlijioa kasu askotan palestinar lesbiana, gay, bisexual eta transexualen nortasunaren zati garrantzitsu bat izaten da. Guk komunitate nortasun guztiak errespetatzen ditugu

Maritxueneztat propio sortutako armairuak egiten dituzten arotz bikainak ditugu; Mendebaldean eskatzen dituzuen erosotasun guztiak dituzte. Ez dugu armairutik atera nahi!

Okupazioak ezarritako mugen barruan egiten dugu lan palestinar gizartean. Israelgo lesbiana, gay, bisexual eta transexualen erronkek ez dute zerikusirik guk ditugunekin

Pinkwashing-ak geure ahotsak, historia eta nortasuna ukatzen dizkigu, munduari esaten baitio Israelek badakiela zer komeni zai-
gun. *Pinkwashing*-a aipatzen du-
gun bakoitzean, geure nortasuna,
historia, ahotsa eta gorputza al-
darrikatzen ditugu, zer nahi du-
gun eta guri nola lagundu mun-
duari esanez.

8.- ZUEN BORROKA DESKRIBATZEKO ZERGATIK ERABILTZEN DITUZUE MEN-DEBALDEAN SORTUTAKO «LGBT» ETA «MARITXU» BEZALAKO TERMINOAK? NOLA ERANTZUTEN DIOZUE KRITIKA HORRI?

Mendebaldeko begirale batzuek gutxiengoak gizarteratzeko gure politika faltsua dela, inuzente eta Israelen konplize garela eta men-
debaldartuta gaudela leporatzen badigute ere, gure ekintzaileek urte askotako esperientzia dute, denbora asko daramate inperia-
lismo kulturalaren eta orientalis-

«Palestinarentzat justizia exijitzen dute maritxuek» irakur daiteke ortzadarraren koloreetan egindako bihotzean.
GAUR8

moaren gaineko analisiak egiten gure komunitateetan bertan. Ho-
rrek akademiko ibiltari mordoa sortzeko lehengai ezin hobea eman digu. Baina Boli Dorrean sartuta daudenek nekez hartzen dituzte kontuan tokian-tokian la-
nean ari diren ekintzaileak; ez di-
ra gai, gainera, ekonomia kolonia-
laren eraginez ekintzaileekiko duten boterea aitortzeko.

Geure komunitateen aurrean erantzule gara, baita urteetako la-
narekin garatutako baloreen zor-
dun ere. Lengoiaia estrategia bat besterik ez da, ez du garen eta egi-
ten dugun guztia baitan hartzen. “LGBT” edo mundu osoan hedatu diren bestelako terminoak kontu handiz erabiltzen ditugu geure mugimenduan. Termino horiek testuinguru eta une politiko jakin batean sortu izanak ez du esan nahi eduki politiko bera dutenik geure testuinguruan. Erabiltzen dugun lengoiaia geure lanaren bi-
tarte berraztertzen eta hedatzen da. Lengoiaia eztabaidak katali-
zatzen ditu, era kritikoagoan pen-
tsatzera eramaten gaitu, baina oraindik ez da sortu geure lana egingo duen terminorik, ez inge-
leseaz ez arabieraz. Hori giza mugi-
mendu batek egin behar du-eta.

Noa? Ni ez noa!

Koldo Sagasti

Uztailaren 16an, Gasteiz-ko Jazzaldian, Noaren kon-
tzertua dago. Azken

urteotan abeslaria Israelen aurka-
ko boikot kanpainaren jomugan kokatu da erregimen sionistare-
kin duen loturagatik. Bere ibilbi-
dea ezagutzen ez duen askori zaila su-
erta dakiok bere aurkako deial-
dia ulertzea. Baina, pixka bat mia-
tuz gero, ez da zaila Israelgo enba-
xadorearen benetako asmoak agerian uztea. Gauza jakina da Is-
raelek artistak baliatzen dituela nazioarte mailan bere *apartheid* politikak zuritzeko, are gehiago armadak Gazako zerrendan buru-
tutako sarraskien ostean Estatu sionistaren irudia kolokan geldit-
zen denean nazioartean.

Noak ederki jokatu du Israelgo itxura zuritzeko estrategia. Bake-
zale irudia arrakastaz antzeztu ba-
du ere, behin baino gehiagotan katamaloa erantzi eta Israelgo ar-
madaren ekintza bortitzenak ba-
bestu ditu. 2009an, “Berun Urtua” operazio militarren harira, No-
ak gutun irekia helarazi zion Ga-
zako herriari. Eraso defendatu eta Hamasi leporatzen zion arma-
dak burututako sarraskiaren erantzukizuna: «Opa dizuedan gauza bakarra da Israelek egin be-
harreko lana egin dezala eta min-
bizi, birus, fanatismo izeneko munstro horretatik libra zaitzate-
la, Hamasetik, alegia». Ahaztu zi-
tzaion aipatzea Israelek ezarritako blokeoaren ondorioz Gazak paira-
tzen duen larrialdi humanitarioa.

Noaren kontzertuaren atzean Is-
raelgo irudia normalizatzeko es-
trategia dago eta hori salatze-
ko zenbait ekimen jarri dira martxan Gasteizen. Kultura arloko eragile-
ek gutun irekia helarazi diote Noari giza eskubideen aldeko ja-
rrera argi bat har dezan eskatzeko; Jazzaharrean, Alde Zaharreko jaz-
zaldi alternatiboko antolatzaileek ere bat egin dute boikot deialdia-
rekin. Noa, Israelgo *apartheid* erregimenaren aurpegi jatorra da, eta Gasteizen ez dugu *apartheid*-
aren erritmoan dantzatu nahi. •






AL HAYAT MEDIA CENTRE | AFP

IKUSMIRA

GALESEN MEDIKUNTZA IKASI BEHARREAN, «JIHADA EGITERA»

Islamaren oinarritzko kontzeptua da «jihad» edo «Jainkoaren bideko ahalegina», Wikipedia entziklopediak esplikatzen duenez. Kontzeptu hori ulertzeko modu ezberdin asko daude ordea. Irudian ISIS Irakeko eta Sortaldeko Estatu Islamikoko hiru kide ageri dira, Al-Hayat Media Centre webguneak azaldu moduan. Erdikoa Abu

Muthanna al-Yemeni da. «Sirian borrokan ibili ondoren, Irakera goaz Alaren laguntzarekin borrokatzera, eta gero Jordaniara eta Libanora arazorik gabe heltzeko aukera izango dugu», dio pasa den asteburuan plazaratutako bideoan. Mendebaldean bizi diren musulmanei dei egin die bideoan euren borrokarekin bat egin dezaten. Ahmed Muthanna Cardiff Galesko hiriburuan bizi da. Telebistan ikusi zuen irudia. Berehala ezagutu zuen Nasser semea. Berak azaldu du 21 urte dituela eta Medikuntza ikasteko asmoa zuela. Beste seme batek ere ISIS taldekoen «jihadarekin» bat egin eta Siriarako bidea hartu zuen. joseangel.oria@gaur8.info



{ irakurrita }



Helena Costa entrenatzaileak hilaren 24an Clermont-Ferranden eskaini zuen prentsaurrekoko irudia. Jean-Philippe KSIAZEK | AFP

Emakume bat da. Guri edozer gauza sinestazteko gai dira», esan zuen prentsaurreko batean Claude Michy Clermont Foot 63 frantses Estatuko bigarren mailako futbol taldeko presidenteak, Helena Costa entrenadore portugesa-ren kargua uzteko erabakiaren berri ematean.

«Claude Michy matxista al da?», galdetu dute **Metronews.fr webgunean**. Hedabide horretan esplikatu dutenez, presidenteak Costaren erabakiaren inguruan sortutako arazoa «erlatibizatu egin nahi zuen, umore pixka bat eta matxismo puntu batekin».

Kontua erlatibizatze biderik okerrera aukeratu zuen orde. Goian aipatutako esaldia «zala-partatsuki sexista» dela idatzi dute **Euronews telebista kateko webgunean**. Helena Costa frantses Estatuan futboleko talde profesional bat entrenatu behar zuen lehen emakumea izatekoa zen, baina beste norbaiti utzi dio ohore hori. Euronews arabera, Michyk adierazi zuen kluba uzteko Costaren erabakia «harrigarria, irrazionala eta ulergaitza» dela. Costak berak ez zituen hasiera batean argitu kargua uzteko arrazoiak. Erabaki «erabat pertsonala» izan dela besterik ez zuen esan lehen momentuan. «Presidenteak baino ez ditu ezagutzen arrazoiak», erantsi zuen, Euronews arabera.

«MOURINHO GONADUNA»

Maiatzean Helena Costak Clermont taldea entrenatu behar zuela ezagutzera eman zenean, berria bazter guztietara iritsi zen. Frantses Estatuko bigarren mailako taldea bat-batean ezagun egin zen. «**The New York Times**» egunkariak berak gaiari buruzko informazioa eskaini zuen, «gizonezkoen taldea gobernatzeko ardura beldurrik

Futbol talde profesional bat zuzendu behar zuen emakumearen bazterketa

joseangel.oria@gaur8.info

gabe» hartu zuela nabarmenduz. Agian hain ausart izateak eragin du begirale batzuek Helena Costari «Mourinho gonaduna» deitzea.

Benfica futbol taldeko harrobia entrenatu zuen, Odivelas emakume futbol taldea zuzendu aurretik. Ondoren Qatar eta Irango emakumeen futbol selekzioak zuzendu zituen. Gainera, Glasgowko Celtic talde eza-gunarentzat ikuskatzaile lanetan aritu zen, Clermontera iritsi aurretik. «36 urte dituela, atzeko atletik joan da; Portugalera itzuli da esplikaziorik eman gabe eta ordainsaririk jaso gabe», Euronews arabera.

Helena Costak ez zuen gauza handirik argitu Clermonten bertan, baina asteartean agiri bat plazaratu zuen Facebook sare sozialean, joklari berrien fitxaketak egiteko garaian ez ziotela jaramonik egiten jakinaraziz. **Argentinako Terra atarian** irakurri dugunez, «kargua uzteko erabakia ez da presazkoa izan, ondo pentsatuta baineukan. Azken asteotan izan diren gertakarien ondorio izan da», adierazi du Costak berak.

Oliver Chavagnon Clermonteko kirol zuzendariari leporatu dio Costak taldea utzi behar izana, **Lusa Portugaleko berri agentziaren** arabera. «Nire oniritzirik gabe, nik zuzendu beharreko taldearentzat joklariak fitxatu zituen. Horrek haserretu egin ninduen», adierazi du. Bere ustez, onartezina da futbol egitura profesional batean entrenatzaileak fitxaketan berri aldeztatik ez izatea. SMS mezuak zein posta elektronikoko mezuak bidali zizkion kirol zuzendariari, kontuak eskatzeko, baina oso berandu erantzuten zion, erantzunez gero. Halako batean, Chavagnonek mezu elektronikoa bidali zion: «Zure mezuekin nazkatuta nago, ez naiz zure mendeko», esan zion, Costaren arabera. Pasa den igandean jakinarazi omen zion presidenteari egoera horretan jarraitzerik ez zuela, baina Michyk telefonoa itzali egin zuen. Horregatik omen doa. •



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Arkitektura kriminala

Ez naizenez inondik inora aditu geopolitika kontuetan, Palestina eta Israel arteko gatazkaz hizketan hasiko natzaizue gaurkoan.

Lekuz kanpo, ausartegi, pentsa zenezakete. Azken finean, arkitektoari buruzko zutabe batean arkitekturaz aritzea da ohikoena.

Eta horrexegatik, arkitekturaz jardun nahi dudalako ekarri dut hona Lur Santua. RIBAk eman dit aitzakia, Arkitekto Britainiarren Errege Institutuak. Aldeko 23 boz, 16 kontrako eta 10 abstentziori esker mozioa onartu zuen RIBAk joan den martxoan Arkitektoen Nazioarteko Batasunetik (UIA) at gera zedin Arkitekto Batuen Elkarte Israeldarra (IAUA).

Mozioak honela dio: «Arkitekto Batuen Elkarte Israeldarrak UIAren 13. ebazpenari entzungor egin dionez, RIBAk UIAri dei egiten dio, gure lanbidearen estandar etiko eta profesionalaren nazioarteko zaindari gisa, Arkitekto Batuen Elkarte Israeldarraren bazkidetza bertan behera utz dezan, legez kanpoko proiektu hauek eragotzi eta nazioarteko legedia eta UIAren akordioak aintzakoitzat hartzen dituen arte».

RIBA, bistan da, Palestinako koloniei buruz ari da, bai eta lanbidearen eta etikaren arteko harreman gatazkatsu hori duintasunez gobernatzeari buruz ere. Deontologia, kontzeptu beharrezkoenak izen ezin itsusiagoak izan ohi dituzte maiz.

Eztabaida ez da hutsaren hurrena. Izan ere, Israelen okupazioaren testuinguruan, arkitektura eta lurralde antolakuntza dira sarraskia aurrera eramateko erreminta nagusiak: establezimenduak, errepide bereziak, eremu industrialak, harresia.

Arkitektura kriminala. Arkitektura dela medio urratzen dira kolonietan nazioarteko legedia eta giza eskubideak; arkitektura dela medio egiten zaie entzungor Genevako Konbentzioari, Nazioarteko Justizia Auzitegiari, Nazio Batuei. Komeni da azpimarratzea, beraz, eraikin eta azpiegitura horiek guztiek arkitekto baten sinadura daramatela, bai eta Arkitekto Batuen Elkarte Israeldarraren oniritzia dutela ere.

Prismatikoak kendu eta gertu begiratzeko betaurrekoak begietan, adreiluaren krisia datorkit burura. Almeriako Algarrobico hotela, esaterako, parke

natural baten erdian eraiki zuten hotela. Bertako logelak marraztu zituen bekaduna imajinatzen dut, sekzioak landu zituen arkitektoa, igerilekua eta kanpo-espazioa diseinatu zituen paisajista. Kate osoa banan-banan, proiektu ekokriminalaren dokumentazioa jaso eta duda-mudarik gabe zigilatu zuen Arkitektoen Elkargoko langilearengana iritsi arte –«Balekoa, onartua!»–.

Arkitektura elkargo profesionalen egitekoa, langileak defendatu eta diseinuaren bikaintasuna sustatzeaz gain, arkitekturaren inplikazio etiko eta politikoez arduratzea ere bada, baina akzioz ala omisioz, gutxitan gertatzen da halakorik.

Optimista naiz, edonola ere, esperantza guztiak jarriak baititut adreiluaren su-etenak ireki duen aro politiko berrian, bai eta Israel eta Palestinak hasi dituzten bake elkarriketetan ere. Desioa hirukoitza: utz ditzatela adreiluak –eta hormigoia, bide batez–, aitor dezatela egindako mina eta eska dezatela –hau hautazkoa da, baina eskertuko nuke– barkamena. •



ILUSTRAZIOA: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Udazkenean begi bat jarrita

Ekaina badoa, oporraldiak berehala jaitziko dio pertsiana ikasturte politikoa-ri. Gero eta luzeagoa izaten den udako motelaldiak den-dena estali baino lehenago, udazkenaren itxurari begirada-txoa botatzea komeni da. Are gehiago udaberriko azkeneko asteek aldaketa ugari ekarri dituztenean. Izan da berri-rik Euskal Herrian: erabakitze eskubidearen aldeko giza kate ikusgarria, indar harreman berria egonkortu duten Europako hauteskundeetako emaitzak, 40 euskal gazteen absoluzioa (eta Auzitegi Nazionalaren epai aski adierazgarria), Sare mugimenduaren sorrera, Baionako manifestazioan konponbidearen alde islatu-riko indar metaketa ikaragarria, Estatuak eragindako biktimek Estatuaren oztopoen aurka egindako salake-ta ozena...

Eta oraindik berri gehia-go -edo ustekabeagoak- Es-tatu espainolean: PP zein PSOEn gainbeheraren lehendabiziko zantzuak, be-netako ezker eraldatzaile baten bistaratzea, erregea-ren abdikazioa 39 urteren ondoren, honen alabaren auziperatzea, Konstituzioa berritzearen aldeko iritziak, estreinakoz makroprozesu politikoen aurka azalduta-ko ahotsak...

Izua beste aldera pasako zela iragartzen zuen hain-batek duela urtebete ingu-ru. Urduritasuna behintzat, espaloiz aldatu da. Motel-motel aurrera egiten ari dira euskal aldarrikapenak, itxuraz lasaitasunez eta konfiantzaz, oinarri sendoak bilatuz, bai burujabetzaren arloan bai eta bake proze-suari dagokionean ere. Azkarrago mugitzen ari da lu-rra Espainia aldean, astindu bortitzez, ezkutukeriaz eta aginkeriaz, kontrol handirik gabeko egoera islatuz. Baina horrek ez du esan nahi aldaketok ez hankarik ez bururik ez dutenik, presaka dabiltzala baizik.

Abdikazioa ez da neurri bakartua, ez luke zentzu handirik. Bistan da ustezko «erreforma agenda» baten barruan kokatzen ari direla erreleboa, aspaldiko esae-ra ezagunari kasu eginez: zerbait (edo dena, bertsioen arabera, ikusiko noraino!) aldatu behar da, den-denak berdin jarrai dezan. Hainbat datu eta indizio daude.

Hasteko, PSOEn buruzagitza itxura aldatuta agertu-ko zaigu aste gutxiren bueltan. Bitartean, berpiztu di-ra Estatuko hauteskundeak urtebete aurreratu eta hu-rrengo udazken-neguan egingo direla dioten zurrumurruak, PP zein PSOEn desgaste handiagoa ekiditeko asmoz. Bide batez, Kataluniarako amua ere bihur daiteke, azaroaren 9an iragarritako galdeketa izozkailuan sar dadin: «Itxoin ezazue, ateran bat ireki daiteke». Amua irenstea askoz errazago litzateke au-rrera egiteko presa handirik agertzen ez duen Lakuako Gobernuarentzat zein Sabin Etxearentzat. Eta gero? Felipe Gonzalezek dagoeneko mahai gainean jarri du «koalizio handia» egitearen aukera. Bigarren trantsi-zioa garatzeko bermea izan liteke, nolabait lehenengo-an asmatu zuten «kontsentsua» (maila murriztagoan) berrituz. Oztopoak oztopo eta arriskuak arrisku, Kons-titutzioari aurpegia garbitu eta sistema osoaren *reset*

Motel-motel eta norabide egokian aurrera doaz euskal aldarrikapenak; astinduka, aginkeriaz mugitzen ari da Estatua, nora ezean ibiliko balitz bezala. Baina presaka dabiltzala baino ez du esan nahi horrek

handi bat abiatzeko zutabea izango litzateke, *biparti-dismoak* sendotasuna berreskuratuko balu.

Politika-fikzio hutsa izan daiteke hau... edo ez. Asti-ro-astiro eta norabide egokian aurrera doan herri hau ez luke inolaz ere bidetik aterako, baina Estatuak lema berrartu eta inizatiba berreskura lezake. Are gehiago Euskal Herriko «koalizio handia» oraindik sumatzen ez denean. Duela juxtu urtebete jendaurrean antzestu zi-ren EAJ eta Sorturen arteko elkarrizketek ez dute ez ja-rraipenik izan ez akordiorik ekarri, eta, metaketa, izate-kotan, azpitik gertatu da, kalean; goitik, 2015eko hauteskunde talkaren lehen orroak nagusitzen zaizki-gu. Xibertarik ere ez da antzematen, Espainia aldean trantsizio berria iragartzen den honetan. Gauza seguru bakarra, haxe: udaren ondoren udazkena datorrela. •

Askapen sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna da ekainaren 28a. Gay, lesbiana, transexual eta bisexualen (LGTB) eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna. Ez da borroka samurra izan inoiz; eraso, jazarpen, zigor, jipoi eta eraiketa forman astindu izan da heteroarautik atera dena. Ez da samurra izan inoiz, eta zaila izaten segitzen du.

Javi Larrauri (Madril, 1971) artista eta dokumentalista da eta «Testigos de un tiempo maldito» proiektuaren egilea. Ekain hasieran Erreterian izan zen, Mikelazulon, proiektuaren parte den dokumentala eskaintzen. Bertan frankismo garaian beren orientazio edo nortasun sexuala zela-eta errepresaliatuak izan ziren pertsonak ekarri ditu gogora eta denon bistan jarri du bizi izan zuten egoera gordina.

Frankismo garaian homosexualitatea bortizki zigortua eta zapaldua izan zen. Hasiera batean «Alferren eta Gaizkileen Legea» erabiliz kriminalizatzen zen eta 1970etik aurrera «Gizarte Arriskugarritasunaren Legea» tarteko. Estatu espainolean homosexuala izatea delitua izan zen 1978ko abendura arte. Eta delitu hori kartzelarekin eta kontzentrazio eremuetako egonaldiarekin zigortzen zen. Izan ere, frankismo garaian Estatu espainolean kontzentrazio eremuak egon ziren, 180tik gora, eta horietako batzuk espresuki homosexualentzako ziren, Fuerteventurako Tefiakoa kasu. Eta homosexualentzako kartzelak ere baziren, Badajozen eta Huelvan esaterako. Horrez gain, bestelako kartzelatan homosexualen zuzendutako moduluak zeuden. Ezaguna da, esaterako, Carabanchelgo kartzelan bazela goiko aldeko solairu bat homosexualentzako erabiltzen zena eta preso batek baino gehiagok bota zuela bere burua goitik behera bizi kentzearen.

Pertsona transexualen kasuan, errepresaliatuak izateaz gain sistematikoki ezkutatuak izan ziren, itzalera kondentatuak eta homosexual modura



GAUR8

«Frankismoak zigortu egiten zituen gay, lesbiana eta transexualak, eta, gizarteak, epaitu eta baztertu»

**JAVI
LARRAURI**

ARTISTA ETA DOKUMENTALISTA

Frankismo garaia sufrimenduaren sinonimo da jende gehiegirentzat. Beren orientazio edo identitate sexualagatik zigortuak izan ziren pertsonen ahotsa jaso du artista madrildarrak, apenas entzun den ahotsa.

amagoia.mujika@gaur8.info

IBILBIDEA Javi Larrauri (Madril, 1971) artista plastikoa da. Hasiera batean argazkia eta margoak zituen adierazteko bide, baina azken urteotan bideoa gero eta gehiago erabiltzen hasi da eta dagoeneko bost dokumental egin ditu. «Testigos de un tiempo maldito» lanak hiru elementuak biltzen ditu bere baitan: argazkiak, marrazkiak eta dokumentala.

hartuak, erregimen frankista ez baitzen gai orientazio sexuala eta identitate sexuala bereizteko. Lesbianen kasuan diskriminazioa bikoitza izan zen, homosexual izateagatik eta emakume izateagatik.

KONTATU GABEKO ISTORIOAK

Istorio bortitzak, gogorrak eta beltzak eman ziren frankismo garaian eta Javi Larraurik istorio horietako batzuk ekarri ditu bere dokumentalera protagonisten azalean sartzeko ahalegina eginez.

«Ni gay-a naiz eta LGTBko aktibista, gaiarekin oso sentsibilizatuta nago beraz. Bestetik, lan horren aurretik memoria historikoarekin lotutako beste bat egin nuen, ‘Mujeres republicanas’ izenekoa. Urtebete inguru eman nuen Bigarren Errepublikan bizi izan zuten eta guda zibilean borrokan aritu ziren emakumeen atzetik. Betidanik izan dut pertsona homosexualak, transexualak eta bisexualak garai haiek nola bizi izan zituzten jakiteko grina eta elkarrizkatzeko nituen emakume guztiei galdetzen nien gai horri buruz. Baina oso informazio gutxi ematen zidaten, baten bat eza gutu zutela baina ezer gutxi gehiago. Eta pena horrekin geratu nintzen. Horregatik, emakumeei buruzko lan hori amaitu eta berehala erabaki nuen espresuki beren orientazio eta identitate sexualagatik errepre-

«Lanik zailena jende hau topatzea izan da. Izan ere, gai honi buruz ez da apenas hitz egin, ez dago informaziorik eta ez dago non topatu ere. Gainera, behin topatuta ere denak ez dira beren istorioa kontatzeko prest egon»



saliatuak izan ziren pertsonen inguruko lan bat egitea», hasi da kontatzen Javi Larrauri.

Dokumentalistak zazpi pertsonen testigantzak jaso ditu bere lanean, testigantza gogorrak eta zer pentsa ematen dutenak. «Saiatu nintzen pertsona zaharagoak topatzen, baina oso-oso zaila izan da hitz egiteko prest zegoen jendea topatzea, eta, azkenean, zazpi horiekin geratu naiz», zehaztu du. «Lanik zailena jende hau topatzea izan da. Izan ere, gai honi buruz ez da apenas hitz egin, ez dago informaziorik eta ez dago non topatu ere. Gainera, behin topatuta ere denak ez dira beren istorioa kontatzeko prest egon. Emakume errepublikarren kasuan askoz errazagoa izan zen, informazio gehiago dagoelako eta emakume horiek denak beren istorioa kontatzeko gogoz eta prest zeudelako. Finean emakume borrokalaria dira, ideia batzuei lotuak eta konpromiso politikoa dutenak. Baina LGTB mugimenduaren inguruan informaziorik ez dago, eta, kontatzeko gogoia ere, gutxiago. Jende hori zigortua eta errepresaliatua izan da erregimen frankistatik, eta baztertuta eta

epaitua gizartearen aldetik, maiz familiak berak ere baztertuta utzi du-eta», kontatu du.

Azkenean zazpi lagun animatu dira beren bizitzako pasarte gogorrera ahots goraz kontatzera. «Egin nituen lehen elkarrizketak 2010eko azaroan izan ziren, Kanarietan. Octavio eta Felix elkarrizketatu nituen, Tefia kontzentrazio eremuan egon zen bata eta bestea kartzela askotan preso eduki zuten. Lehen elkarrizketa horiek niretzat oso hunkigarriak eta gogorrak izan ziren. Emakume errepublikarren kasuan jasoak nituen istorio oso bortitzak eta gordinak, baina elkarrizketatuen profila oso zen desberdina. Adin dezenteko gizonak ziren eta oso gutxitan aipatu duten gai bati buruz ari zitzaizkidan. Bizi izandako min ikaragarria sumatzen zen eta zigor horiek nola markatu zuten beren bizitza. Batetik, aurrekari penalak zituzten eta horrek korapilatu egiten zuen beren egunerokoa. Eta, bestetik, gizarte osoak baztertu zituen, familiak eta lagunak barne».

Bakardadea. Hori da Larraurik elkarrizketa guztietatik ateratu duen ondorioa. «Bai kanpoan

bai kartzelan bai kontzentrazio eremuetan oso bakarrik egon ziren. Preso politikoek bazuten partiduko kideen babesa, eta baita gizartearena eta etxekoa ere. Baina gay, lesbiana eta transexualen kasuan ez zegoen halakorik, artean ez zen mugimendurik existitzen eta bakarrik zeuden, oso bakarrik. Erregimen frankistak zigortu egiten zituen, eta, ezkerreko mugimenduek, arbuiatu. Ez zegoen bere lehentasunen artean pertsona hauen eskubideen alde borroka egitea. Pentsa, gay eta lesbianak alderdi komunistatik kanporatuak izan ziren zuzenean», kontatu du Larraurik.

Eta, bitartean, zenbat bizitza joan diren. Larrauriren dokumentalean agertzen direnek dagoeneko urteak pilatuak dituzte, tristurak adina. «Etendako bizitzak izan dira. Erregimenak eta Elizak zehaztutako moral ‘zuzen eta egoki’ horretatik ateratzen zen guztia zikiratu eta suntsitu egiten zituen garai bat bizitza egokitu zitzaielako. Homofobia, transfobia, matxismoa aspalditik zetozen, baina bazirudien Bigarren Errepublikarekin askatasun gehixeago

arnasteko modua izango zela, orokorrean haize berriak sumatzen ziren, baina bat-batean frankismoa etorri zen eta modurik bortitzenean ito zuen giro hura».

“Testigos de un tiempo maldito” lana modu oso zuzenean hasten da, inor hotz ez uzteko eran. Queipo de Llano jeneral frankistaren diskurtso bat da abiapuntua. «Espainia hegoaldean aritu zen Queipo de Llano. Estatu kolpea gertatu eta berehala jeneral hau bertako komunikabideen jabe egin zen, tartean “Radio Unión Sevilla” izeneko irratia. Eta egunero diskurtsoak ematen zituen bertatik. Diskurtso horiek zenbait komunikabide idatzitan jasotzen ziren hurrengo egunean. 1936ko udan ematen zituen diskurtso horietako batean emakume errepublikarrak bortxatzen zela animatzen zuen jendea. Eta dokumentalaren hasieran ematen dudan diskurtso horretan homosexualak hartzen ditu ahotan, eta horiek erailtzera animatzen du gizartea. Alegia, garbi geratzen da frankistek homofobia oso barruan zeukatela sartuta».



CANDELA 1941, Alcala del Rio. 1966an Bartzelonan atxilotu eta bost hilabetetik gora eman zituen kartzelan. Denbora asko eman zuen bakartuta gela batean. Gauez koltxoi bat eta manta bat eman eta egunez kendu egiten zizkioten. Eta horrela ematen zuen eguna, lurrean eserita ezer ez zegoen ziega batean.

ANDRES 1939, Auxerre. 1965ean, Donostian bizi zela, preso eraman zuten Martuteneko kartzelara homosexuala zelako. Franko oporretara zetorren eta hiria «garbitzeko» agindua emana zuen. Geroztik, sei urte eman behar izan zituen Suedian bizitzen, inon ez zuelako lanik lortzen bere aurrekari penalak medio.



Lanaren musikak ere badu garrantzia, Federico Garcia Lorca idazleak harmonizatutako herriko abestiak baitira soinu bandaren oinarria. «Errepresaliatua eta fusilatua izan zen 1936ko udan, besteren artean, homosexuala izateagatik. Horregatik nahi nuen presente egotea nire proiektuan», kontatu du Larraurik.

MARTUTENEN PRESO EGONDAKOA

Bere lanean bildu dituen biografien artean dago Andres Garciarena, 1939an Estatu frantsean, Auxerren, jaioa. Andresek kontatzen du oso txikitandik izan zela bere homosexualitatearen jakitun. Haurra zela Donostiara etorri zen bizitzera eta oso gazte hasi zen irrati esatari lanetan, Radio Guipúzcoa irrati lehendabizi eta Radio San Sebastián irrati geroago. Izen oneko profesionala zen, ezaguna Donostian eta inguruetan.

6oko hamarkadan Donostian bertan gizon gazte bat ezagutu eta harremana hasi zuten. Andresek kontatzen du biak elkarrekin bizi zirela normaltasun osoz, baten familiak eta bestearenak bazekitela eta ez zutela inolako arazorik.

Francok uda asko pasatu zituen Donostian. Urtero, jenerala hirira iritsi baino egun batzuk lehenago, “garbiketa” egiten zuten Poliziak eta diktadorearen atsedena “aztora” zezaketenak kartzelan sartzen zituen; batez ere frankismoaren aurkako mugimendu politiko en inguruan zebiltzanak. 1965ean prostitutak eta homosexualak ere hartu zituen Poliziak jomugan. Urte hartako uztailaren 10ean jaso zuten polizia-etxetik deia Andresek bere etxean. Artean ez zeukan sarekada haren inolako berririk eta agindu bezala bertaratu zen, nonbait pertsona bati buruzko «galdera batzuk» erantzutera.

Komisario baten galdeketa-ri luze erantzun zion Andresek polizia-etxean. Eta dagoneko bertan denbora tarte bat zeramanean, komisarioak zuzenean galdetu zion ea homosexuala zen. Eta Andresek,



ENRIQUE 1953, Sevilla.

Haurra zela Madrilera joan zen bizitzera gurasoekin. Lehenengoz 17 urte zituela atxilotu zuten. Geroztik, kartzelara sartu-irtenak etengabeak izan ziren. Carabanchelgo kartzelan «El Palomar» bezala ezagututako goi partean egon zen. Homosexualak eta transexualak zeuden bertan. Bertatik ikusi zuen nola egiten zuten bere buruaz beste preso askok.



CORAL Madrilen jaioa, 1962. urtean. Oso umetatik mutikoenak omen ziren janzkerak eta jolasak maitezituen. 12 urtera arte «nahi zuen modukoa» izaten utzi omen zioten eta adin horretan hasi zen «probetxuzko emakume» bat izateko doktrinamendu gogorra. Bakardadea bere bizitzako ezaugarria izan da urte askoan. Mugimendu feminista ezagutzeak bueltatu zion berriz arnasa.



FELIX Palman jaioa, 1931. urtean. Umetatik zigortu eta baztertu zuten eskolan apaizek, «marikoirik ez zutelako nahi». 1950etik 1958ra bitartean kartzelara sartu-irtenak etengabeak izan ziren Felixen kasuan. Hamar aldiz atxilotu eta preso sartu zuten zortzi urteko tarte horretan. Bitartean denetarik erasoak eta jipoiak jaso zituen. Gaur egun 80 urte dauzka eta trabestitzen eta trabestismoa aldarrikatzen segitzen du.

baietz. Segidan eraman zuten Martuteneko kartzelara eta bertan bakartuta egon zen lehen bi asteetan. Gero preso hartutako beste zenbait pertsona homosexualekin batera jarri zuten modulu batean. Hilabete eta erdi eman zuten preso eta aske utzi zuten, epaiketaren zain.

Andres Garciak kontatzen duenez, kartzelatik atera eta lanera bueltatu zen. «Radio San Sebastián bertan langileek batzar bat egin zuten eta han denen artean erabaki zuten ez zutela arazorik ikusten ni lanera bueltatzeko. Eta halaxe bueltatu nintzen. Baina, noski, norbaiti ez bazitzaion ondo iruditzen, ez zidaten bueltatzen utziko», kontatu du Andresek.

Sei hilabetera izan zen epaiketa eta bortxazko lanak egitera eta erbestera behartu zuten epaiak. Eta Donostiatik kanpo lan bila hasi zenean gauzak korapilatu egin ziren, bere aurrekari penalak karga handia baitziren. Azkenean Suediara joan beharra izan zuten eta bertan eman zituen sei urte, «nire espediente legala itxi zutenean bueltatu nintzen».

HETEROARAUAREN MUGA ZURRUNAK

Orientazio heterosexuala duen pertsona batek ez du bere bizitza sexualaz eta bere hautuaz inolako azalpenik eman beharrik. Ulertzen da bere intimitatearen jabe dela. Orientazio homosexuala duten pertsonen azalpen gehiegi eman behar izan dituzte segur aski, ikusten denez langile batzar batean gai nagusi izateraino lankide homosexual baten bizitza pribatua. Larrauriren hitzetan, «gure gizartean normala, arautua, ona, egokia heteroaua da. Hortik ateratzen den guztia onartu beharreko zerbait bihurtzen da, ulertu beharrekoa, toleratu beharrekoa. Niri ez zait batere gustatzen ‘tolerantziaren’ kontzeptua erabiltzea kasu hauetan. Hartara, normaltasun horretatik ateratzen den guztia onartzen den

edo ez erabaki beharra dago, epaitu beharra dago. Sistema-ren parte da hori».

Larrauriren dokumentalak azaleratzen duena sistema horretatik kanpo sentitu direnen sufrimendua da. «Sistema binarioa da erabat. Homosexuala edo heterosexuala izan behar duzu, emakumea edo gizona. Eta binarismo horren tartean dauden pertsona guztiak patologia gisa hartuak dira, eta sistemak kriminalizatu egiten ditu. Badirudi jaio orduko etiketa bat jarri behar digutela. Eta binarismo horrek tristura eta larritasun asko sortzen dizkie eredu jakin eta bakar batean kabitzen ez direnei. Izan ere, pertsonak nabardura eta xehetasun asko dauzkagu».

Eta sistema binario horren zirikituetatik erortzen diren pertsonak bakarrik, oso bakarrik sentitzen dira maiz, munduan toki propioa topatu nahian. Dokumentalean argigarria da oso Coral Canoren kontakizuna (1962, Madril). Madrilgo Usera auzoan hazi zen, ezkerrekoa eta ateoak zen familia batean. Txikitandik galtzak zituen gustuko, ez soinekoak; ilea motz-motz eramaten zuen, bota handiak janzten zituen eta autoekin jolastea maite zuen.

«Nik nahi nuena izan nintzen 12 urte bete nituen arte, nahi nuen bezalakoa izan nintzen. Adin horrekin, baina, auzoz aldatu ginen eta nire gurasoek eskolaz aldatu ninduten. Hezkuntza librearen aldeko eskola zoragarri batetik Opus Deiko eskola batera eramanez ninduten 'probetxuzko emakume' egiteko. Eta nire gurasoak ezkerrekoak eta ateoak ziren, pentsa», kontatzen du Coralek dokumentalean. Eta hala eman zituen bere bizitzaren lehen urteak, munduan gustura egongo zen txokoaren eta inguruaren bila.

«Bakardadea eta munduan zure tokia topatzeko zailtasuna ohikoak izaten dira. Maiz sentitzen duzu zure inguruan ez zaituztela ulertzen, ez zaituztela zeren bezala onartzen. Eta hor hasten da bilaketa, ulertzen eta onartzen zaituen jendea topa-



«Etendako bizitzak izan dira. Erregimenak eta Elizak zehaztutako moral 'zuzen eta egoki' horretatik ateratzen zen guztia zikiratu eta suntsitu egiten zuten garai bat bizitzea egokitu zitzaielako»

«Tamalez gure herriko eskuina apenas aldatu den. Egun Fernandez Diaz ministro espainiarra hizketan entzun eta ez dago orduko frankisten hitzetatik oso urrun, eta pentsatuta ere gizon horrek isilduko dituenak!»



OCTAVIO 1931, Palma. 23 urte zituela atxilotu zuten eta Tefia kontzentrazio eremura eramanez zuten. Bertara eramanez zituzten atxilo hartutako homosexualak eta transexualak. Eremura eramanez baino lehen, preso guztiei ilea larru-arras moztu eta estali gabeko kamioi batean paseatzen zituzten irlan barna, herritarrek ikus zitzen.



LOLA 1955, Sevilla. 18 urte zituenean soldaduska egiteko aurkeztu zen, baina ez zuten onartu, «maritxu itxura handiegia» omen zuelako. Gerora kartzelan sartu zuten homosexuala zelako eta bertan hilabeteak eman zituen. Kartzelan sukaldari lanetan aritu zen. Handik aterata hasi zen hormonak hartzen eta 2003az geroztik bere nortasun agiriak emakumea dela esaten du.

tzeko beharra», kontatu du Javi Larraurik.

Homofobia, baina, ez da 1936ko edo 1970eko gaitza. «Tamalez gure herriko eskuina apenas aldatu den. Egun Fernandez Diaz ministro espainiarra hizketan entzun eta ez dago orduko frankisten hitzetatik oso urrun, eta pentsatuta ere gizon horrek isilduko dituenak! Homofobia oso txertatuta dau-

kate, hori ez da aldatu. Akaso batzuetan, politikoki zuzenak izatearren, ez dituzte pentsatzen dituzten guztiak esaten, baina hala ere perla ederrak botatzen dituzte. Eta Elizako zenbait pertsonaiekin zer esanik ez. Bizi garen gizarteko sektore handi batek homofobia, trans-fobia eta matxista izaten segitzen du. Bide luzea dugu oraindik egiteko».

Tresna desberdinekin kontatutako istorioak

Javi Larrauri artista plastikoa da, eta horretan ibili izan da dokumentalak egiten hasi baino lehen. Marrazkiak izan dira batez ere bere adierazteko bidea. «Emakume errepublikarren inguruko lana egiten hasi nintzenean konturatu nintzen ez nuela nahikoa marrazkiekin. Kamera bat hartu nuen eskuetan, nola funtzionatzen zuen jakin gabe ia, eta harekin hasi nintzen, emakume horien testigantza jasotzeko beharra sentitzen nuelako. Geroztik hasi nintzen bideoa nire lan tresna moduan erabiltzen», kontatu du. Hartara, «Testigos de un tiempo maldito» lanak marrazkiak, testu biografikoak, argazkiak, erretratuak eta dokumentala biltzen ditu. «Nire bosgarren dokumentala da hau eta berez proiektuaren parte bat baino ez da. Baina egia da toki askotatik deitu didatela dokumentalaren proiektzioa egiteko eta bizitza propioa hartu duela azkeneko. Indian ere eman dute eta sariren bat ere irabazi du», segitu du egileak. Dokumentalak «o aurrekontua» izan du, erabat autofinantzatutakoa izan da. «Kamera txiki bat, tripode bat, foku bat eta mikrofono txiki bat hartuta Estatu espainol erdia zeharkatu dut. Eta dena nik egin dut. Baliabide aldetik oso apala izan da eta asko poztu nau jendearen aldetik izan duen harrera beroak. Egia esan, erabat beharrezkoa iruditzen zait istorio hauek kontatzea, egin beharra zegoela sentitzen dut».

EHGAM-EN HASIERA

Francisen hilketak ozendu egin zuen homosexualen eta transexualen borroka

 **JENDARTEA /**
amagoia.mujika@gaur8.info

Duela 35 urte polizia espainol batek tiroz erail zuen Erreterian Bizente Badillo «Francis». Garaiko egunkariak «emakumez jantzitako gizon baten» hilketaren berri eman zuten, EHGAM plazara atera zen milaka lagun en aurrean eta lehenengoz ahots gora aldarrikatu zuen pertsona orok sexualitatea modu askean bizitzeko duen eskubidea.

Bizente Badillo Francis Alacante-ko herri txiki batekoa zen berez, gazterik Erreteriarri bizitzera etorria eta erabat bertakotua zegoena. Gaua maite zuen eta emakumez trabestitzea gustatzen zitzaion. Asko ibiltzen zen Apolo izeneko dantzalekuan, oso ezaguna zen bertan eta areto horretako langileak lagunak zituen. Hain juxtu, bertan galdu zuen bizitza.

1979. urteko ekainaren 10a zen. Francis Apolo dantzalekuan zegoen, bertako langileekin hizketan eta trago bat hartzen. Ordurako diskoteka itxita zegoen. Norbaitek atea jo zuen eta langile bat gerturatu zen atera dantzalekua dagoeneko itxita zegoela esateko. Baina ate joka zebilen gizona ez zen konformatu, eta berriz egin zuen sartzeko saiakera. Eta, berriz, erantzun berdina eman zioten. Azkenean, ez dakite seguru nola, baina lortu zuen gizon hark dantzalekura sartzea. Lekukoek kontatzen dutenez, oso urduri eta haserre zegoen, euskaldunen kontrako biraoak botatzen zituen behin eta berriz, eta euskaldunen bat zeinen gustura hilko lukeen esaten omen zuen. Eta horrela zebilela,



Francisek esan omen zion, «euskaldun bat? Ba hementxe daukazu bat». Orduan gizonekoak pistola bat atera zuen poltsikotik eta tiro eman zion Francis. Balak begian jo zuen eta han bertan geratu zen zerraldo. Gerora jakin zen tiro eman ziona Antonio Cava Laguna polizia espainola zela. Epaiketaren ondoren bederatzi hilabete kartzelan eman eta libre geratu zena.

EHGAMEN JENDAURREKOA

Erreterian berehala zabaldu zen Francisen erailketaren berri eta herri batzar bat deitu zen gertaera latz hura nola salatu erabakitzeko. Aldi berean, udal batzarraren ezohiko bilkura bat izan zen (artean ez zegoen udaltzerik) hilketaren hura gaitzesteko.

Eraiketa gertatu eta bi egunera, ekainaren 12an, Erreterian greba orokorra izan zen eta herri batzar jendetsua antolatu zen herriko plazan. Garaiko kronikek kontatzen dute 10.000 lagun baino gehiago bildu zirela batzarrera eta ondorengo manifestaziora. Herri batzar hori oso garrantzitsua izan zen. Bertan, milaka lagun en aurrean, agertu ziren lehendabizikoz EHGAM-eko zenbait kide eta ozen esan zuten bazela garaia pertsona homosexual eta transexualen eskubideen aldeko borrokan has-teko. Nahikoa zela, ezin zela beste erasorik onartu inoren aukera sexuala tarteko.

Mikel Martin EHGAMeko kidea herri batzar hartan zegoen duela 35 urte, eta borroka bide berdinean segitzen du gaur egun. «Bizkaian sortu zen EHGAM urte pare bat lehenago eta Donostia inguruan eta Oreretan ere ari ginen mugitzen. Baina Francisen hilketak prozesua bizkortu egin zuen. Hurrengo egun en egunkari batean irakurri genuen *'Han matado a un hombre vestido de mujer'* eta izugarri haserretu ginen. Bazirudien emakumez jantzita egoteak erasoaren larritasuna gutxitzen zuela. Eta orduan esan genuen, amorrut eta haserre, nahikoa zela. Hor geundela eta gure es-

kubideen alde borrokatzeko go-go eta beharra sentitzen genituela. Ozen esan genuen pertsona guztiek geneukala nahi genuen modura janzteko eskubidea, modu askean maitatzeko eta sexualitatea nahi moduan bizitzeko», kontatu du Martinek.

Ordura arte entzun gabeko ahotsa zen. «Manifestazioetan oso ohikoa zen Poliziaren kontra egiteko 'maricones' eta 'iros a tomar por el culo' bezalakoak entzutea. Horiek ziren, jende askorentzat, zeuden irainik eta erasorik bortitzenak. Eta gu han, haien ondoan manifestazioan. Gu, homosexualak eta ipurditik hartzea gustuko genuenak. Horrelakoekin erabat nazkatuta geunden», segitu du Martinek. Nabarmendu du, gainera, manifestazio haietan parte hartzen zuen jendea aurrerakoia zela, abangoardia zela, erabat errepresioaren kontrakoa, eta, hala ere, «heteroarauan erabat sartuta zegoena, pertsona homosexualikiko aurreiritzi izugarriak zituen».

TRABESTISMOA GARAI HARTAN

«Trabestismoa, bai Francisena eta bai besteena, nahiko toleratzen zen garai hartan baldin eta muga zehatz batzuetatik ez bazinen ateratzen. Gogoan dut nola etortzen ginen Donostiako gunera batera. Bertan ohikoa zen trabestien espektakuluak egotea eta gauez trabesti horiek txalotzen zituztenak hurrengo egunean atxilotu edo erasotzen zituzten berdinak ziren. Trabestismoa onartuta zegoen bizitzeko modu oso mugatu eta zehaztu gisara, toki konkretu batzuetan eta une zehatzetan. Betiere begira zeuden dibertimendurako, jolaserako, baina ez hortik kanpora. Ezpainak margotutako gizona, ileorde bat janzten zuena, soinekoa janzten zuena... une batean ondo pasatzeko tresna bat baino ez zen begira zeudenentzat, une horretan beren beharrak ase beste lanik ez zuena. Hortik kanpo, iraindu, jipoitu, atxilotu eta



Ezkerreko orrialdean, Francisen hilketa salatzeke egindako herri batzarra. Goiko irudian, batzarraren ondoren egindako manifestazioa. 1979ko ekainak 12 hartan 10.000 lagunetik gora elkartu ziren Oreretan. GAUR8

zigortu beharrekoa zen», kontatu du Mikel Martinek.

Berak ezagutzen zuen Francis eta ezagutzen zuen zer-nolako giroan mugitzen zen, garai hartako jendartearen tasunak ezagutzen dituen bezala. Deskribatzen duen egoera gogorra da; «gauez homosexualekin harremanak zituzten gizon asko egunez haien kontrako jarrera bortitzenak agertzen zituztenak izaten ziren, egunez jipoitzen eta iraintzen zituztenak», jarraitu du.

Mikel Martin, Francisen antzera, erreteriarra da eta garai hartan herrian mugimendu dezentekoa zegoen, arlo guztietakoa gainera. «Oreretan mugimendu handia zegoen. Beti izan da oso

herri dinamikoa eta aldarrikatzailea, ondo antolatutakoa eta erantzuteko gaitasun oso sustatua duena: langileen mugimendua bizi-bizirik zegoen, mugimendu feminista suspertzen hasita zegoen, Franco joan berria zen, diktadura baten itolarritik gentozen eta arnasa hartzeko behar izugarria genuen... Testuiguru horretan kokatu behar dira Francisen hilketa eta ondorengo protestak», kontatu du.

Francisen erailketa baino astebe lehenago gertatu zen Tuteran Gladys del Estal ekintzaile ekologistarena. Guardia Zibil baten tiroz erail zuen gaztea protesta antinuklear batean parte hartzen ari zela. Mikel Martinek

bi erailketak oso gertutik bizi izan zituen; Tuterako protestan bertan zen eta Francis herriko laguna zuen.

Francisen erailketa gertatu zenerako Erreterian gizon eta emakume talde bat elkartzen hasia zen asko kezkatzen zituen gai bati buruz hitz egiteko: askapen sexuala. «Heteroarautik kanpo sentitzen ginen, gutxiengo bat ginen eta erabat kontrakoa eta bortitza zitzaigun inguru batean mugitzen ginen. Sentitzen genuen betebeharrak bagenituela, beste pertsona guztiek bezala, baina eskubiderik ez genuela. Eta kezka bizi genuen egoera. Pentsa, 1978. urtera arte homosexualitatea delitua zen».

Francisen hilketak eta ondoren komunikabideetan izan zuen oihartzunak isilka baina dagoeneko bazetorren borroka bat azkartu egin zuen, eta ozengoz bihurtu. «Orduan hasi ginen esaten 'Hemen gaude eta ez gara ezkutitzen' manifestazioetan», kontatu du Mikel Martinek. 35 urte geroago horretan segitzen dute, aurreiritziak deseraikitzen eta heteroarauaren bide estuak zabaltzen, denon mesederako.

Bizkaian urte pare bat lehenago sortu zen EHGAM, eta, ordurako, 1979ko ekainerako, talde bat elkartzen hasia zen Gipuzkoan. Francisen hilketak prozesua bizkortu egin zuen

«Manifestazioetan ohikoa zen Poliziaren kontra egiteko 'maricones' eta 'iros a tomar por el culo' bezalakoak entzutea. Askorentzat horiek ziren irainik eta erasorik bortitzenak»



Mikel MARTINEZ




IKUSMIRA

NASA-K AUKERATUTAKOA

Mikel Martinez astroargazkilari gasteiztarra pozik ego- teko moduan da. NASAko APOD (Astronomik Picture Of The Day) webgunean bere argazkia aukeratu dute, goian ageri den horixe hain juxtu. Astroargazkilaritzan dabilTZanentzat sari handia da NASAko webgune ho- rretan aukeratuak izatea, errekonozimendu ederra. Martinezek kontatu duenez, «argazkian agertzen den objektua Iris Nebulosa da, eta bere inguruan dauden

laino molekularrak. Iris Nebulosa kolore urdineko izar- lainoa da eta Lurretik 1.300 argi-urtera dago, Cefeo izeneko izar multzoaren baitan». Argazkiaren atzean ordu askoko lana dago. Bai argazkia ateratzeko mo- mentuan emandako orduak eta baita gero ordenagailu aurrean informazio osoa azalera ateratzeko emanikoak. Martinezek esan duenez, joan den maiatzean Pirinioe- tan ateratakoa da argazkia. amagoia.mujika@gaur8.info



GAUR8 ireki gure leihoa



Gorka Zozaia
Kimikaria

Nor maite du Eugenek?

Duela bi urte egin bezala, **Alan Turing (1912-1954) dakart gogora gaur, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Nazioarteko Eguna den honetan.** 60 urte bete berri dira matematikari, logiko, konputazioaren zientzialari, kriptografo eta filosofo britainiarrak, ustez, bere buruaz beste egin zuenetik. Bi urte lehenago bere homosexualitatea ez ezkutatzeagatik prozesatu egin zuten, baita kastrazio kimikora kondenatu ere. Estrogenoak aldaketa handiak eragin zituen bere gorputzean, eta, zianuroarekin kutsatutako sagar bat janda hil izanak, suizidioaren tesia indartu egin zuen. Aldiz, Alan Turingen ekarpena aitortzea mende erdi kostatu denean eta indultu penala 2013ko abenduan jaso berri duenean Isabel II.aren eskutik (David Cameronen gobernuak urtebete lehenago indultua ukatu egin zion), argi dago jendarte heteropatriarkala izan zela bere heriotzaren erantzulea. Nazien aurkako borrokan ekarpen garrantzitsua egin izanagatik (Bigarren Mundu Gerran nazien mezuak deszifratzen aritu zen), espero zitekeen ohiko hipokresiak berak ere ez zuen salbatu umiliazio profesional zein pertsonaletik, ezta heriotzatik ere.

Hain zuzen ere, bere jaiotza-
ren mendeurrena zela-eta, "Turingen urtea" izendatu zuten 2012. urtea. Orduko ekainaren hondarrean idatzi nuen "Adimen artifiziala, atzerakoia eta askatzailea" artikulua (<http://www.gaur8.info/edukiak/20120630/349449/Adimen-artifiziala-atzerakoia-eta-askatzailea>), bere ekarpen nagusiena deskribatzeko baliatu nuen: "Turingen makina". 24 urte besterik ez zituela diseinatu zuen eredu matematikoak, konputazioaren oinarria jarri zuen; algoritmo baten bidez adieraz daitekeen edozein matematika problema inplementatzeko gai den automata baten

eredua, finean, hardwarea eta softwarearen oinarritzko definizio bat. Ekarpengarrantzitsu horren ondotik, kriptografian eta konputazioan jardun zuen eta bide horretatik heldu zen adimen artifizialaren esparrura. 1950ean argitaratutako "Konputazio makinak eta adimena" artikuluan, "Turingen testa" bezala ezagutzen den esperimendua proposatu zuen, makina batek adimenik ote den egiaztatzeko saio gisa.

Esperimendu horrek desafio bat proposatzen du: gela batean epaile bat galderak egiten izanik, eta ondoko gelan gizaki bat eta makina bat galderak erantzuten, epaileak zein den zein ebartzi beharko du. Turingen tesia honakoa da: epaileak makina gizakiarekin nahasten badu, orduan makinak adimena due-

la esan daiteke. Loebner Saria izeneko lehiaketak, 1990etik urtero antolatu izan du esperimendu horretan oinarritutako proba bat, eta, lehen aldiz, 2010ean lortu zen epaile bat nahastea; hain zuzen ere, Bruce Wilcoxez garatutako Suzette robotak lortu zuen. Aurten, berriz, Royal Society prestigiotsuak Turingen heriotzaren 60. urteurrena gogoratzeko antolaturiko lehiaketan, ez da soilik epaile bakar bat nahastea lortu, baizik eta epaileen %33, Turingek probarako ezarritako %30eko muga lehen aldiz gaindituz. Vladimir Veselov eta Eugene Demchenkok diseinaturiko Eugene Goostman *chatbot* edo txateatzeko programaturiko robotak lortu du; robotak 13 urteko mutiko ukrainar bat simulatzen du eta gizaki batekin edo gehiagorekin izan ditzake elkarrekintzak audioz edota idatziz.

Zalantzarik gabe, "Turingen testa" lehendabiziko aldiz gainditu izana mugari garrantzitsua da adimen artifizialaren eremuan, baina, 1950ean proposaturiko esperimendua bat dela kontutan izanik, tentuz aztertu behar da gertatutakoa. Hainbat kritikok esan dutenez, ez da gaitasun handiko makina bat neurtu, baizik eta soilik elkarriketak mantentzeko espresuki diseinatu den makina baten gaitasuna. Ikuspegi horrekin nahiko bat nator ni neu ere, baina, harago joanda, beste zerbaitek kezkatzen nau ni askoz gehiago: adimenarekin zer demontre ulertzen ote dugun.

Urrunago joan barik, izapideak egiten eman dut gaurko goiz osoa, eta, zalantza barik, arreta eskaini didatenen erdiak automata gisa hartuko lituzke "Turingen testa" epaitu beharko lukeen edozein epailek. Turing bera epaitu zuten horiez ere zer esan? Are gehiago, egun nagusi den pentsamendu heteronormatibo hau zer adimen klase da ba? Makinetan adimen bila gabiltza, gizakiok berezkoa bagenu bezala, baina frogatzera heltzen garen bakarra makinek gizakiek bezala zer puntura arte joka dezaketen da. Eugene Goostman gaixoa, utziko al diote ardi elektrikoekin amesten? Eta normahi maitatzen? •



Alan Turing (1912-1954) zientzialari bikaina izan zen. GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Oreka

Soka lotu dut munduko ertz galdu honetan. Zuk, urrutiko beste alde batean katigatu duzu sokaren beste muturra. Zutoin honek gainean zutik nagoela, soka zeruertzean desagertzen dela ikusten du. Zure oihuaren oihartzuna iritsi da, isiltasuna hautsiz, itxaronaldia etenez. Prest gaudela dio, aurrera egin dezakegula.

Pauso bat egin dut lehenengo, beste bi segidan. Irmo. Haizeak alde batera bultzatu nau, nire bidea oztopatuz, grabitatea ekiditeko nire saiakera antzutuz. Haizealdiak nire ibilbide narea oztopatzen jarraitzen du, grabitatea desafiatzeko saiakera honetan jarraitzen dudana bitartean. Etsipenez betetako iraganetik ihesi gabiltza; itsasontziak urperatuta zeuden iragan hartan; eta, gu, behaztopa eginenez, anabasan galduta genbiltzan. Ezin genuen han luzarotan iraun.

Aurrera jarraitu dut, pauso bat, eta beste bi pauso txiki ondoren. Urduritasunez, gelditu naiz, bat-batean. Urrutira, ozta-ozta mundu berri bat ikusten dut. Beltza eta zuria nahas daitezke han. Mundu hartan, egun batean nik hitz egingo dut eta zuk entzun egingo didazu; beste egun batean, nik emango dizut zuk eskatzen duzun hori. Esan dinate, leku hartan dikotomiak ez direla existitzen. Esan dinate, elkarbizitza, ulermena eta elkarrizketa direlako eguneroko bizitzako bereizgarri. Joko guztiak bidezko epaiek gidatzen omen dituzte; badakizulako batzuetan nik irabaztea zilegi dela, eta horregatik onartuko duzu zure porrota; agian, beste egun batean, zu izango zarelako podium gainera igoko dena. Finean, sakrifizioak egitean datza. Sormena eta adierazpen askatasuna, mugarik gabeko eremu batean gailentzen dira. Partiturarik gabeko melodiek gelak dotoretzen dituzte, interpretazio ezberdineko liburuak eta nobelak daude gelako apaletan. Ambiguotasunaren definiziorik ez dago hiztegietan, baina bi esanahi izatea posible da, gauzak bi leku ezberdinetakoak izan daitezke. Sentimenduak eta hitzak nahasten dira, neurri egokian. Dramatismoak azaleratzen dira barre algar artetik eta dantzan gabiltza, kristalezko basoen gainean oin puntetan. Negar egiten dugu, barreari deskantsu emanez, maite zaitudala esatera arinegi ibili gabe. Denbora dago, sokaren gainean besarkatuta egoteko.

Hemen goitik, lurretik berrehun eta berrogeita hamar metrotara dagoen soka honen gainetik, itsasontziak ikusten ditut. Ekaitzen aurka borrokan dabilta, egunak eta gauak eman dituzte atsedetik gabe, ozeano batetik bestera ausardiaz bidaiatuz. Hemen goitik, distantziak ematen duen perspektiba objektibo honetatik, arau zehatzak jarraituz doan armada bat dirudite. Helburu bakar bat daukate: helmugara iristea, helmuga bakar hori zeharkatzea. Itsasontziek ehunka botila daramatzate bidaiariak bailiran. Mezu bat dago botila bakoitzaren barruan. Mundu berrirako mezuak dira. Irletara, hirietako portuetara eta herri txikietako hondartzetara iristen direnean, marinelek botila batzuk ateratzen dituzte, oreka mantentzeko, itsasontzia ez hondoratzeko. Gaur, iraganeke oroitzapenak utzi dituzte portuan, zapalketa gailendu zen garai haietako oroimenak ziren. Lurrean utzitako mezuetan injustizia eta inpartzialtasunaren

Agian, beste egun batean, zu izango zarelako podium gainera igoko dena. Finean, sakrifizioak egitean datza. Sormena eta adierazpen askatasuna, mugarik gabeko eremu batean gailentzen dira

ahotsak zeuden gordeta. Bihar, akaso, maite genituen haien arrastoak alde batera utzi beharko ditugu, hainbeste asebetetzen gintuzten memoria horiekin giltzaturik, lurrean. Baina, denok dakigu, hori dela naufragioa saihesteko modu bakarra.

Aurrera jarraitzen dugu, pixkanaka, bide bakar honetan. Berdin da non gauden. Mundu berri horretara iritsi behar gara.

(Testu hau, Donostia 2016 Gunearen irekiera jaialdirako ingelesez idatzi nuen testuaren itzulpena da. Gaur hirurte beteko dira Donostia Europako Kultur Hiriburu izendatu zutenetik. Hori ospatzeko, Donostia 2016ren egoitza berriak ateak zabalduko ditu eta Kultur Hiriburu-tzaren erreferentziazko espazio bihurtuko da 2016. urtera arte). •

«IZAN NAHI DUT»

Marwane Azergui, Batxilergoa euskaraz atera duen lehen ikasle marokoarra

📁 GIZARTEA / Maider Iantzi

Gaileta kaxak eta freskagarriak prest daude Tolosako kultur etxeko bazter batean, Kike Amonarriz aurkezle eta herritarrek erran bezala, gaur ospakizun eguna baita, ospakizun publiko batena, Marwane Azergui ikasle marokoarrak Batxilergoa gainditu duelako euskaraz. Agian lehenengo begiratuan ez zaio gauza handia irudituko norbaiti, agian ez du sekula honetan pentsatu. Baina Tolosaldean lorpen hau egin duen lehendabiziko marokoarra da 18 urteko gaztea.

Joseba Ibarra Lakuako Hezkuntza eta Immigrazio programako arduradunak baieztatu duenez, eskatzen zaien esfortzua izugarria da eta hurbiletik bizi arte ezin da ulertu ere egin. Jatorkin etorkinen aldeko elkarteak antolatutako mahai-inguru eta bestan, Marwaneren beraren, familiaren eta herritarren poz malkoekin, ikasle etorkinen errealitatera pixka bat gerturatu da GAUR8.

«EUSKARAZ, EUSKARAZ!»

Amaieratik hasiko dugu jaia-ren kontaketa, orduan egin baitu hitz protagonistak berak. «Eskerrik asko» izan dira bere lau hitzetatik hiru. Bereziki gurasoei zuzendu zaie, hunkituta, «beti izan dut euren babesa eta eurei esker nago hemen. Espero dut laguntzen segitzea», erranez. Eta irakasleei eta Orixe-Tolosa institutuko zuzendariari ere bai, «hasieratik konfiantza emateagatik eta euskara erakusteagatik». Hainbat hizkuntzaren jabe izanik, hitzaldia nola hasi erabaki behar izan du Marwanik, eta, altuan pentsatuz, «gaztelaniaz hasiko naiz eta gero euskaraz» bota du. «Euskaraz, euskaraz!» animatu dute senide eta lagunek. Eta hala egin du, primeran gainera.

Marwani ordenagailu eramangarri bat opari eman diote, eta Saad Malec Jatorkin elkarteak ordezkariak eskolako arrakastan motibazioak eta familien inplikazioak zerikusi

handia dutela nabarmendu du. «Horrela bakarrik hel daiteke berdintasunera», defendatu du. Eta Malec beraren gogoetekin hasierara itzuliko gara. «*Salam alekum*» batekin agurtu ditu Kike Amonarrizek Tolosako kultur etxean bildutako lagunak –etorkin familiak umeei, hauei lan egiten duten langileak, eta herritar arruntak– eta arratsaldeko lehenbiziko txalo beroak aditu dira. Hasieratik sumatu dugu jendea txalo jotzeko gogoz etorri dela.

«Marwanek badu meritua, horregatik gaude hemen, ohituta gaudelako etorkinak berri

txarrekin lotzera», adierazi du aurkezleak, ekitaldiaren izaera azalduz.

ARRAKASTARAKO GAKOAK

Xabier Tolosa Orixe-Tolosa institutuko zuzendariak mutikoa-ren ezaugarri bat nabarmendu du: «izan nahi dut» erraten du gazteak. Eta nahi hori gauzatu dadin, bere gurasoak eta familia inplikatu egin dira, bileretara etorri, galdetuz, aktiboki parte hartuz. Arrakastarako lehenbiziko baldintza bete dute horrela: motibazioarena. Bigarrena, Tolosaren arabera, hizkuntza menderatzea da, eta, hirugarrena, ikasteko ohiturak hartzea. «Ezin

Marwane Azergui, Jatorkinek antolatutako ekitaldian hitza hartu zuen momentuan.
KUTXAKO GIZARTE EKINTZA



dugu gauza bat lortu ez bagara konstante edo sistematiko. Kasu guztietan. Arrakastaren oinarria eguneroko ikasketa da», baieztatu du. Eta detaile bat gaineratu du: zoriontsu izatea, bizitzaz gozatzea, irri egitea, kirola egitea...

Non dago porrota? Institutuko zuzendariaren iritziz, sarri «biktimismoan». Hori ikusi duela kontatu du: «'Etorkina naizenez ezin dut egin, ez didate laguntzen...' esaten dute batzuek, eta ez da horrela. Hemen dugu frogia. Ideia hori burutik kentzeko eskatuko nuke». Urrats hori egiten laguntzeko daude zubi gelak. Latinoamerikarren kasua aipatu du eta aunitzetan gaztelania jakiteak zailtasunak dakartzala ohartarazi du, «badirudielako euskara ez dela garrantzitsua», eta euskara ikasteko beharra nabarmendu du.

Bertze faktore bat ohiturak dira. Adibidez, kultura batzuetan 16 urte betetzen dituztenean neskek ez dutela ikasten segitu behar pentsatzen dute. Kasu batzuetan esfortzu handiz, lanarekin uztartuz, ateratzen dituzte aurrera ikasketak. Tolosaren ustez, borondatea eta laguntza behar dira, eta gorenera ailegatzeko tematzea. Gorena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza izanen da batzuentzat, bertzeentzat Batxilergoa edo karrera bat.

EUSKALTEGIRIK MERKEENA

Hizkuntza menderatzea aipatu dugu eta, horrekin lotuta, honako oharra egin du etorkin batek Herrialde Katalanetan eta Euskal Herrian izandako esperientziak alderatuz: «Katalunian debalde da katalana ikastea; hemen, aldiz, euskara da hizkuntzarik garestiena. Horrek ez du laguntzen».

Iñaki Azaldegi Tolosako Udaleko euskara teknikariak erantzun du herri honetan dagoela, desberdintasun handiarekin, «Euskal Herriko euskaltegirik merkeena», bertako bizilaguentzat behinik behin.

Horrekin batera, neska-mutiko etorkinei euskara ikasten laguntzeko helburuarekin, Udalak Laskurain ikastolak langile bat kontratatzea sustatu du herriko hiru ikastetxeetan aritzeko, Las-

Marwaneren gurasoak eta familia inplikatu egin dira, bileretara etorritz, galdetuz, aktiboki parte hartuz. Arrakastarako lehenbiziko baldintza bete dute horrela: motibazioarena

kurainen, Orixen eta Hirukiden. Nerea Egileor da langile hori eta ikasleei ikasketak euskaraz egin ahal izateko behar duten mailara ailegatzen laguntzen die. Jende helduagoa euskalduntzeko, Banaiz Bagara elkarte babesten du Udalak.

Indar guztiarekin egin diote txalo euskara teknikariari ere, eta Lakuako Gobernuko Hezkuntza eta Immigrazio programako arduraduna, Joseba Ibarra, igo da kultur etxeko oholtza txikira. «*Hoy es un día luminoso*», adieraziz egin dio keinu, gaztelaniaz, Marwaneren aitari. Eta bere hitzaldia josteari ekin dio kulturarteko hezkuntzaren inguruan.

“Kultur aniztasuna” eta “kulturartekotasuna” kontzeptuak ezberdindu ditu eta “arteko” hitzaz ahanzten garena ohartarazi du. Hitz horrek partekatzea erran nahi du. «Etorkizuna elkarrekin eraikitzea tokatuko zaigu; hori da kulturartekotasuna». Baina, orokorrean, Ibarra-ren arabera, “gutaz” eta “eureta” solas egitera ohituta gaude. Honela dio Mafaldak ere bineta batean: «Ze zorte txarra, justu guri tokatu zaigu atzeritarrez betetako mundua!».

Bertze esaldi bat bota du Hezkuntza eta Immigrazio programako arduradunak: «Mundua etxera etorri zaigu». Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, 18 urtetik beherako neska-mutilen matrikulazioan, 2001ean etorkinak ez ziren 3.000 iristen. 2007ra arte igotzen eta igotzen joan zen kopurua, eta geroztik ere gora doa, neurri txikiagoan bada ere. Baina migrazio mugimenduak ez dira alde bakarrekoak, norabide guztietan doaz. Bertako gazteak ere kanpora doaz. Hala izan da beti. Etxekoak kanpora doaz eta kanpokoak etxera datoz. Ibarra baiezta duenez, «geldiezina da hori, gustatu ala ez». Eta ondorio bat dakar: pentsatzeko eta bizitzeko era desberdineko jendea.

Azaldu duenez, globalizazioa ez dira soilik Internet eta kostu baxuko hegaldiak, gero eta lagun gehiago ditugu jatorri ezberdinekoak eta hori ikasgeletan ere gertatzen da. Aunitz

«Etorkizuna elkarrekin eraikitzea tokatuko zaigu; hori da kulturartekotasuna», dio Joseba Ibarra hezkuntza adituak. Baina, bere esanetan, «gutaz» eta «eureta» hitz egitera ohituta gaude

bertan jaioak dira, baina beren gurasoak bertze herri batetik etorri ziren egun batean. Gazte hauetako batek «zer dakizu nitaz?» galdetuko baligu... Ibarra irakasle izana da duela gutxi arte eta garbi dio: «Ez dakigu ia deus». Bere ustez, irakasleek jarrrera batzuk berrikusi behar dituzte eta beren buruari galdetu behar diote nola konektatu ikasle hauekin.

IKUSTEN EZ DUGUN ICEBERGA

Batzuetan, icebergaren punta balitz bezala, ikusten dugun gauza bakarra da hondoak ez

dakiela euskaraz, baina azpian ikusten ez dugun gauza ugari dago: ez daki euskaraz, baina amazigera hitz egiten du, arabiarra ere bai, bere familia faltan ematen du...

Lakuako Hezkuntza eta Immigrazio programaren arduradunaren arabera, elkar ezagutzeko eta integratzeko bidea eskola inklusiboa («ez dute, inondik inora, aparteko eskola batean hasi behar»), ikasgeletan aktiboki parte hartzea eta lorpenak eskuratzeko dira.

Ikasketak autopista batekin konparatu ditu irakasle izandakoak. Ikasle batzuk kurtso erdian ailegatzen dira; batzuk 10 urterekin, bertzeak 8 urterekin... Ahal dutenean etortzen dira eta autopistako sarbideetan gertatzen den bezala, jada abiadura batekin sartu beharra dute. Zubi gela da azelerazio erreia, bertan

hartzen dute ikasleek behar duten indarra, irakasle espezializatu baten bultzadarekin.

BI ERREIREKIN, AZKARRAGO

Familia batzuk gaztelaniaz mintzatzen dira eta irakasleei komunikatzeko eta balorazio bat egiteko aukera ematen die horrek, baina, Ibarra ziurtatzen duenez, integratzeko eta kideekin erlazionatzeko beharrezkoa da euskara ikastea. Bi erreiko bidea da eta bi erreitan batean baino azkarrago zirkulatzen da. Beste ikasle batzuk bizpahiru hizkuntzarekin etortzen dira baina horien artean ez daude ez euskara ez gaztelania.

Hizkuntza berri batean barneratzeko, zubi geletan egokitutako material pila bat dago, hiztegi bisualak adibidez. Baina, Ibarra dioenez, ikasi ikasi, elkarrekin-tzan ikasten da. Garrantzitsua da

Marwane gaztearen familia eta lagunak, Tolosako kultur etxean.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS





hizkuntza edukien bidez ikastea ere, hau da, edukiak izatea hizkuntza ekartzen dutenak.

Laguntza guztiekin ere, izugarrizko esfortzua egin behar dute ikasle etorkinek, hizkuntza gaitasun batez jabetzea eta, aldi berean, curriculum oso bat barneratzea lortu behar dutelako: Natura, Gorputz Hezkuntza, Plastika, Musika, Matematika, Gizarte, Lehen Hizkuntza, Bigarren Hizkuntza... Zenbaitetan hizkuntza ikasten laguntzeko irakasle bat egoten da, baina

gainontzeko irakasleek ere badute zer erranik.

Hau ezin da egin ikaslea pixka bat “engantxatu” gabe. Gainera, oraindik gehiago konplikatzen da dena Batxilergora sartzean. «Murgiltze eredua edo igerian ikastea edo itotzea da... edo, bestela, Marwanek bezala, estiloarekin igeri egitea!». Baina mutiko hau bezalakoak gutxi dira.

Hezkuntza adituak dio urteekin «asko ikasi» arren, badela «zerbait ongi egiten ari ez garena». Kanadako adibidea jarri du

Jendeak gogotsu parte hartu du mahai-inguruan, indarrez txalotuz, hitza eskatuz, argazkiekin uneak gordez... Guztia pozezko malko artean.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Batzuk kurtso erdian ailegatzen dira; 10 urterekin, 8 urterekin... Ahal dutenean etortzen dira, eta, autopistako sarbideetan bezala, jada abiadura batekin sartu beharra dute

«Murgiltze eredua edo igerian ikastea edo itotzea da... edo, bestela, Marwanek bezala, estiloarekin igeri egitea!», dio Ibarrak. Baina mutiko hau bezalakoak gutxi dira

eta jakinarazi du bertan bospasei urtera hasten direla ikasle etorkinak bertako hizkuntza ezagutzara hurbiltzen. Urte horietan ikaragarria da goititzen duten malda: «Gehien ikasten dutenak dira, zalantzarik gabe. Horregatik, batzuetan injustuak izaten dira eskatutako mailara iristen ez direnen kontrako kritikak. Ezin ditugu ikasle guztiak berdin neurtu».

Basoan tximu eta elefante bati azterketa egitean lehen frogagisa zuhaitz batera igotzea eskatzea bezala dela agertu du. Tximuak bikain aterako du eta, elefanteak, eskas. Hala, etorkinek, orokorrean, nota txarragoak ateratzen dituzte. Aldea, hala ere, gero eta txikiagoa da. «Horren meritua irakasle askorena eta gizartearena da, eta, bereziki, ikasle etorkinena beraiena».

DAKARTEN OINARRIA INDARTU

«Etorkizunean, zer?», galdetu du, hitzaldia bukatzeko, Joseba Ibarrak. Murgiltze linguistikoa

bilatzen jarraitzea proposatu du, ongi antolatua, eta hizkuntza edukien bidez irakasten segitzea, testu egokituez eta bestelako tresnez gain. Familiekin komunikazioa eta elkarlana sustatzea ere ona dela deritzo; etorkinek dakarten oinarria indartzea, dakitena eta ikasten dutena lotuz; eta elkarrekintza sustatzea, taldeka lan eginez edo bikoteka irakurriz.

Hitzaldiaren ondotik iritsi da galderen eta komentarioen txanda eta gogotsu parte hartu du jendeak, mikroa eskuz esku pasatuz. Botatako ideien artean, etorkinekin lan egiten duen langile batenak. Honek jakinarazi du gaur egun 92 jatorri ezberdinetako lagunak bizi direla Tolosaldean, eta jende gehiago ailegatzen ari dela. Alderdi akademikoaz gain, emozionala eta aisialdiarena kontuan hartu behar direla defendatu du, ikaslearen egoera pertsonalari erreparatuz eta euskarara, eskolarekin bakarrik ez, zoriontsu izatearekin eta bizitzaz gozatzarekin ere lotuz.

POSTMODERNO XELEBREAK

Agur esateko garaia heldu zaigunon gorabeherak

AZKEN ZINTA



Ar-emekak

Amaia Agirre

Ar-emekak aritzen gara han-hemenka. Ikerketak izaten dira egia absolutuaren laguntzaile, dena aztertu eta dena frogatu behar den gizarte honetan. Umetatik ikasten dugu konparazioaren bidez gure lekua non dagoen zehazten. Gauza eta pertsona bakoitzaren balioa besteekiko erkaketak ondorioztatzen du. Munduan gure lekua horren araberakoa izaten da, zoritxarrez. Lorpenak edo nork bere penak.

Eta horixe gertatzen da emakumezkoen kirolean ere. "Emakumezko" hitza aurretik daramaten alor guztietan, esango nuke. Ez dira egun asko, futboleko, Kopako finala jokatu zela, baina izan duen oihartzunak ez du gure belarririk zulatu, ezta kilimatu ere. Eta ikerketek dakarte arrazoia, besteak beste. Abiadura, in-

tentsitate eta ibilitako distantziaren arteko aldeak argitzen du sekretua.

Goi mailako ehun emakume eta gizon jarraitu, neurtu eta ikertu omen dituzte. Ni emaitzek ez naute harritu, noski. Begi bistakoa da ezberdintasuna eta diferentzia, intentsitatea eta distantzia, baina askotan jakintza eta intentzioan dago alderik nabarmenena. "Goi mailako futbola" deitzen zaie biei, baina biak ez dira goi mailakotzat hartzen. Izendatu bai, baina tratatu ez. Ezta kontatu eta ko-bratu ere.

Hiru Liga eta hiru Kopa irabazi dituen jokalaririk batek 30 urteren bueltan etxerako bidea hartzea ohikoa da. Eta bizilagunak ere ez du ezagutuko, urte asko pasa baititu kanpoan. Estatutik atera gabe, hor ere distantziak txikiagoak dira gizonetan baino, baina

urruntasuna ez da askotan kilometrotan neurtzen.

Zarauzko hondartzako futbol txapelketan ere sariak ematen dituztenak beti dira gizon-nezkoak. Futboleko ikur izan direnak eta baita gaur egun izar direnak ere. Zer nahi duzue esatea? Niri ilusio handiagoa egingo lidake bi mutuak bazarrik gabeko baten ezpainetatik baletoz. Eta ez nabil azafata eske, ez. Alderantziz. Horrelako keinuekin onartzen zaio bakoitzari bere lekua eta balioa. Irakurle askori txikieria irudituko zaio, baina kostata lortzen denak zapore hobe izaten du askotan. Irauli egin behar dira aurrekariak, eta iraultza txikiei lekua eman. Ikerketak ez daude sobera, baina egunerokotasunean eta zernahi arlotan zer gertatzen den aztertzeko gai izan behar genuke, balioak besteen teiltura botatzen aritu gabe. •

MANEXEN MASKARADA

Gaztedi Dantzari taldeak maskarada plazaratuko du gaur Zalgizen

 **KULTURA** / oihana.llorente@gaur8.info

Hogei urte joan dira Bilboko Santutxu auzoko Gaztedi Dantzari taldeak maskarada lehen aldiz plazaratu zuenetik. Urteurren borobila ospatzeko berriz sartu dira kantiniersa eta zamaltzainen zapatetan, eta, Bizkaian aritzeaz gainera, maskaradaren aberrira joateko gonbita ere jaso dute. Gaur dute hitzordu handia Zalgizeko plazan.

Zuberoan inauterie-tako igandetan ohi-koak dira manexen txangoak. Autobusak aparkatu eta kamera kolkoan duten japoniarren antzera, Bidasoaren bestaldekoak prest izaten dira kantiniersa eta zamaltzainen espektakulua filmatzeko. Gaurkoan, baina, arrunt desberdina izango da Zuberoako Zalgize herrian izango den ikus-kizuna, paperak trukatu eta manexak izango dira-eta bralia dantzatzeko gonbita zuberotarrei luzatuko dietenak.

Zehazki, Bilboko Santutxuko Gaztedi Dantzari taldeko kideak izango dira Zalgizeko plazan ari-tuko direnak. Haiek izango dira, gainera, Zuberoako herrialdean maskarada bat antzeztuko duen lehen manex taldea. «Ohorea» da bizkaitarrentzat eta oinen antzera dituzte kirioak, dantzan.

63 urte luzeko historia du Gaztedi Dantzari taldeak. Bizkaiko talde zaharrenetarikoa da Santutxukoa, eta, aspaldikoa eta berezia den harremana du Zuberoako maskaradekin. Bi hamarkada baino gehiago igaro dira Zuberoara lehen bidaia egin zutenetik. Hala azaldu digu berederen, Ane Ituiño Gaztedi Dantzari taldeko dantzari ohiak: «Euskal Herriko dantzak bertatik bertara ikasteko ohitura du gure taldeak. Axuri beltza ikastera Jaurrietara joan izan gara, Otsagiko dantzak ere bertan ezagutu ditugu, eta, garai hartan Zuberoako maskarada bertatik bertara ezagutzeko hara joan ziren gure aurrekoak, hango maisu eta maistrekin ikastera».

Ordutik urteroko zita da santutxuarentzat maskarada eta hoge-i urte hauetan ez dute hutsik egin Zuberoako inauterietan.

Zuberoan ikusitakoa gustatu, ikasi, eta ederto entseatu ondoren, 1994. urtean Zuberoako maskarada oso bat Bizkaian plazaratu zuen Gaztedik. Behin baino gehiagotan plazaratu, gainera. Ez dago argi hura izan ote zen Hego Euskal Herrian estre-nekoz maskarada oso bat kalera-tzen zen lehen aldia. Batzuek baietz diote, beste batzuen aburuz, ordea, Donostiako Argia taldeak egin zuen lehen aldiz 80ko hamarkadan.

Aitzindariak izan ala ez izan, esperientzia ederra izan zen maskaradarena, eta aurten, 20. urte-muga borobila ospatzeko, marexale edota buhameen trapuak jantzi eta berriz atera nahi izan dute Bizkaiko plazetara.

Zuberotarren antzera aratuste garaian dantzaz, mintzoaz, musikaz eta abestiez baliatuta lan-bideak antzeztu dituzte Gaztedi Dantzari taldekoek. Santutxun, sorterrian, egin zuten lehen era-kustaldia pasa den martxoan. Bilboko alde zaharrera jaitsi ziren ondoren. Eta Zamudion egin dute azken espektakulua, euskara taldeak antolatutako Euskal Astearen baitan.

Dantzaren berora hurbilduta-ko ikusleen artean Zuberoatik bertatik etorritako Zalgizeko her-ritarrak zeuden. Ikusitakorekin hunkitu eta maskaraden aberrira gonbidatu dituzte dantzari biz-kaitarrak. Zalgizeko gazteak izan dira gainera, Iruri herrikoekin batera, aurten hamalau astez, as-tebururo-astebururo, Zuberoa

Bilbon eskainitako maskaraden irudiak. Behealdean, Ane Ituiño eta Ane Garai, ispilu aurrean entseatzeko.
GAUR8
Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS





alaitu dutenak. Izan ere, urtero herri bateko gazteek dute maskarada antolatu eta herrialdea zeharkatzeko ardura eta ohorea.

Autobusa hartuta, atzo iritsi ziren Zalgizera dantzari bizkaitarrak. Gaur dute estreinaldi handia, Zalgizeko herriko besten egitarauaren barruan, eta sekulako ahalegina egin dute maskarada txukun bat antzeztu ahal izateko. Oraingoan, gainera, berrikuntza gisa beltzen taldean bost seinari jarriko omen dituzte dantzan.

TOKIAN TOKIKOA

Orain hogeitau urte egin zuten moduan, termino soziologiko eta linguistikoetan Bizkaira egokitutako antzezpena plazaratu du Gaztedi Dantzari taldeak. «Zuberoan hain tradizio handia duen maskarada ezagutarazi nahi genuen, baina, betiere, tokian tokiko, gure kasuan Santutxuko, errealitatera egokituta egin nahi genuen», azaldu digu Ituiñok.

Hitzetan oinarrituta dauden adierazpideak, horrenbestez, tokian-tokian uler ditzaten egokitu dituzte. Zubereraz mintzatu eta kantatu beharrean, euskara batuaz zein bizkaieraz egin izan

dituzte predikua eta sermoiak. Kherestuen papera, aldiz, galegoek hartu dute Bizkaian. Biarnesez aritzen dira Zuberoako kherestu originalak, zaldia zikitzeko ofizioa haiena omen zen-eta aspaldian. Lanera etorritakoen paralelismo bizkaitarra galegoek antzeztu dute Bilbo inguruan. Santutxura bisitan etorritako zuberotarrek kherestu modernoiei fisik ulertu ez zieten arren, ideiei paregabea iruditu zitzaizen galegoen fitxaketa. Hala azaldu digu Ituiñok, bederen.

Predikuetan egon ohi da maskaradaren mamia. Buhameta kauteren hitzartzeetan eta Xorrotzek kobletan ironiaz eta umorez azaltzen dituzte herritarren burukomin izan diren arazoak. Hortaz, herriaren arabera, igandero, desberdina izan ohi da Kabana Handiaren predikua.

Bizkaitarrek ere euren erara moldatu dute predikua, eta, Santutxun, Bilbon eta Zamudion egindako hitzartzeak desberdinak izan arren, bizi dugun egoera sozioekonomikoaren kritika egin dute guztietan. Hizkuntzaren, gazteen eta euskal presoen egoeraz ere kezkatuta agertu da Kabana Handia ikuskizun guztietan.

Bizkaitarrek, baina, etxetik kanpo jokatzeko dute gaurkoan eta hizkuntzaren zailtasun gehigarriarekin egingo dute topo. Izan ere, predikuak eta koplak zubereraz egiten ahaleginduko dira Gaztedi Dantzari taldeko kideak. Hala iragarri digu Ane Garai dantzariak, eta, abestea eta antzezteko maskaradako egiteko zailena dela aitortu digu ere. «Gu, azken finean, dantzariak gara. Hobeto edo okerrago baina dantza egitera ohituta gaude, ez, ordea, antzezttera. Gainera, zubereraz egin behar hori... Bizkaitarrek, gainera, ez dugu zuberotarrek bezain ongi abesten!», azaldu digu irriñoa ahoan duela Garaik.

Arrunt desberdina izango da Zalgize herrian izango den ikuskizuna: paperak trukatu eta manexak izango dira bralia dantzatzeko gonbita zuberotarrei luzatuko dietenak

Bizkaitarrek etxetik kanpo jokatzeko dute gaur eta hizkuntzaren zailtasun gehigarriarekin egingo dute topo. Predikuak eta koplak zubereraz egiten ahaleginduko dira

Errespetua handiarekin doaz Zalgizera. «Erronka handia da bertara joan eta euren den zer-bait egitea, ea pozik gelditzen diren», esan digu Garaik.

Predikua zirikatzailea izango dela aurreratu digu, baita testua prestatzeko Zalgizeko bizilagunak izan dituztela lagun ere. «Bertan gertatutako hainbat pasarte eta bitxikeria kontatu eta haiek erabiliko ditugu ikusleak zirikatzeko», aitortu digu.

Guztira 50 partaidetik gora izango ditu gaurko ikuskizunak, dantzariak eta musikariak aintzat hartuta. Egun Gaztedi Dantzari taldeak hogeitau bat dantzari ditu nagusien taldean, eta, beraz, taldekide ohien laguntza ezinbestekoa izan dute. Maskaradaren abenturara azkar animatu den horietakoa da Ituiño. «Askotan entzuna nuen maskaraden kontua, baina nire garaian ez genuen antzezteko aukerarik izan. Orain birritan pentsatu gabe animatu naiz», kontatu digu kantinierearen paperean sartuko den santutxuarrek.

Dantzariak, gainera, ez dira bakarrik joan, beraiekin batera hamarnaka santutxuarrek egin baitute Zuberoara txangoa. Horrenbestez, bizkaitarrek gainezka dago uneotan Zalgize inguruan den Urdiñarbeko kanpina.

Giharreko minari aurre hartu eta orduak sartu behar izan dituzte entseguetan, bereziki Ituiño bezala dantzaren soka berrartu dutenak. «Aspaldi ikasi nuen, ederki kostata, eta orain berreskuratu behar izan dut. Orain, gainera, ez daukat lehenengo forma!» aitortu digu barre artean. Irailetik, maskarada egitea erabaki zutenetik, astean birritan aritzen dira gutxienez entseguetan parte hartzen.

Pertsonaia bakoitzak dantza bat plazaratu behar du, batzuk xamurragoak eta besteak konplikatuagoak. Gorrien taldekoak izan ohi dira dantzari dotoreenak, beltzak, bien bitartean, zabarrenak izan ohi dira. Ituiñoren arabera sekretua pertsonaia ondo aukeratzean datza: «Bakoitzak ondo dagozkion pausuak egitea da ederrena, bakoitza bere paperean sartzea eta hari zukua ateratzea».

infraganti

IGOR ARREGI

Sukaldaritza bai, ikasi zuen, baina tarteka bakarrik aritzen da sukaldean. Bezeroei ongietorria egin eta haiek jan-edana gustura egin dezaten arduratzen da. Jatetxeko semea izanik ondo daki ostalaritza zer den. Jantoki buru onenaren Euskadi saria jaso du. Horretarako ez du eskolara joan beharrik izan, gurasoak izan ditu etxean bertan maisu.

Langileak hara-hona dabiltza jangela garbitzen eta txukuntzen Kaia-Kaipe jatetxean. Igor Arregi (Getaria, 1971) dena behar bezala dagoen begiratzen ari da. Itsaso urdinak aparteko markoa jartzen die jatetxeko leihoei. Baina badute aurretiagoko lanik.

Pozik hartu du Euskadi Gastronomia saria. «Nire lanari eman zaion onespen publikoa da; polita eta eskertzekoa da». Bereziki gurasoei adierazi die eskerrona. «Beraiekin ikasi dut dakidan dena», dio. Baita lantaldari ere. «Denek gauza bera esaten dute ondo geratzeagatik, baina egia da». Neguan 15 langile dira, udan 30era iristen dira.

Lidia Olaizola emazteak eta biek daramate azken urteotan negozioaren ardura. Familia kontuetan zaila izaten da bat etxeko negozioan lanean noiz hasi zen esatea. «Txikitatik aritu gara hiru anai-arrebok laguntzen». Hemezortzi urte daramatza jantoki buru bezala.

Enpresa ikasketak egin zituen lehenik, eta ondoren Luis Irizar maisuarengana jo zuen, honek Donostian duen sukaldaritza eskolara. Martin Berasategirekin ere egin zituen praktikak. Sukaldari ikusten zuen bere burua. «Beti gustatu izan zait sukaldean aritzea. Baina gurasoek eta bezeroek eurek ere jantokian egon eta bezeroei kasu egitea eskatzen zidaten», dio. Ezin bietan egon.

Ostalaritzako jardueraren argi-itzalak ditugu hizpide. «Gustukoa izan behar duzu, bestela ez du merezi. Oso lotua da, ordu asko dira, baina bezeroen eskerrena ere jasotzen duzu. Jende asko ezagutzen duzu», dio.

Mende Erdiko historia du atzean jatetxeak. Irulegineako ormek –horixe da etxearen izena– makina bat bezeroen joan-etorria ikusi dute. Berdin herri-tarrak, goi burgesiako pertsonak eta Donostiako Zinemaldira etorritako Hollywoodeko garaiko izarrak.

Atzean geratu dira Maria eta Inazio aitona-amonek Kaia taberna ireki zuteneko garaiak. 1962. urtea zen. Banderillak eta kazolatxoak eskaintzen zituzten. Zapoa, bisigua eta legatza izaten ziren aukeran, patatekin. Txipiroi kilo batek pezeta bat balio zueneko garaiak ziren. «Amona Maria oso sukaldari ona zen», nabarmendu du.

Alaba Maria Rosak eta Andoni senarrak, Igorren gurasoek, hartu zuten lekukoa ondoren. 1972an Kaipe jatetxea ireki zuten, Kaia-ren azpian. Kaia tabernan bezeroak Kantauri itsaso urdina du aurrez aurre; Kaipe jatetxeak, berriz, terraza du, arraina erretzen den parrilla bertatik bertara duela.

18 urterako argi zeukan Igorrek jatetxean gurasoei erreleboa hartuko zuela egunen batean. Aita eta ama, biak, egoten ziren jantokian, bezeroen beharrei adi. Zortedun sentitzen da. «Nik baino meritu handiagoa dute aitak eta amak. Hori oso garbi daukat. Hutsetik hasi ziren, eta denborarekin izena, bezero asko eta arrakasta lortu zuten. Nik gutxienez mantentzea nahiko nuke», aitortu du.

Denboraldiko produktuak agintzen du Kaia-Kaipeko sukaldean. «Ahal den produkturik onena garairik onenean saltzen saiatzen gara. Orain hegaltzea hasi da, txipiroiak hasiko dira. Neguan onddoak direla, ilarrak, itsaskia ere gehiago saltzen da

neguan... Kokotxak, erreboiloa, mihi-arraina...», esan du. Portua bertatik bertara izanda arrain freskoa jatera datoz bezeroak. «Herriko arrantzaleek txipiroiak, barbarinak, itsas kabrak, mihi-arrainak ekartzen dizkigute. Horrez gain, Donibane Lohizune, Pasaia eta Lekeitio ere hornitzaileak ditugu», azaldu du.

Kalitatea lehenesten dute. «Bezeroak pixka bat gehixeago ordaintzeko prest izaten dira. Ona jan nahi dute eta nik dagoen onena bilatzen dut. Ez dut preziorik galdetzen. Onenarekin joanda arazoren bat eduki deza-kezu, baina, prezioari begira bazabiltza, jai duzu!», dio.

Kalitatea eta zerbitzua. Biak eskutik doaz. «Bietako batek huts egiten badu bezeroa ez da itzuliko. Janaria ona bada, baina harrera egokia egin ez badiozu

ez da bueltatuko, eta berdin oso zerbitzu ona baina kalitatea txarra ematen badiozu. Negozioaren sekretua bezeroa itzultzea da. Hori gauzak ondo egiten ari zaren seinale da».

Bezeroak mimatua sentitu nahi du. «Zer nahi duen galdetu, daukazun generoaren arabera eskaintza ona egin, konfiantza eman... Psikologo lana da. Tarte-ka mahaira joan, galdetu zer moduz ari diren jaten...», dio.

Jaso berri duen saria ikusita, garbi dago platerekoarekin batera Igorrek eskaintzen dien tratu ere baloratzen dutela. «Badi-za zer jan edo edan nahi duten dakitenak, baina asko dira gomendioak gogo onez hartzen dituztenak, gero eta gehiago».

Arrainak bezainbesteko estimazioa du itsaskiak. Bizi-bizirik ikus ditzakegu, bisitarien zain,



abakandoak, otarrainak, zigalak, nekorak eta izkirak, jatetxetik metro batzutara dagoen haztegian. Ederki daude itsasotik zuzenean datorren uretan. Izan ere, inork gutxik daki Kaia jate-txearen aurreko kalean, galtza-da-harriaren azpian, ur gazia daraman hodia dagoenik.

Kaia-Kaipek duen ardo bodega ere nabarmentzekoa da. Guztira 40.000 botila dituzte. «Aitak afizio handia izan du. 30-50 erreferentziatik 1.000 izatera pasa gara. Bezeroak izan dira, oharkabean, mila erreferentzia izatera eramane gaituztenak. Ardo desberdinak dastatuz sentsazio berriak bizi nahi ditu bezeroak. Upategi bat bakarrik ez, uzta jakin bat eskatzen du, gainera». Hilero-hilero berritzen dute karta. Aitak etxe-koentzat osatu duen bilduma propioak ere 4.000 botila ditu.



«Gurera datozenek ona jan nahi dute eta horixe bilatzen dut. Onenarekin joanda arazoren bat eduki dezakezu, baina, prezioari begira bazabiltza, jai duzu!»

«Bezeroak beraiek izan dira, oharkabean, bodegan mila erreferentzia izatera eramane gaituztenak. Ardo desberdinak dastatuz sentsazio berriak bizi nahi ditu bezeroak»

Garaian garaiko bezeroen nahietara egokituz bilakaera nabarmena izan du Kaia-Kaipe jatetxeak. «Lehen Iparraldeko bezeroekin hasten ziren bazkariak, 12.000ak aldera. 14.000etan hemen ingurukoak zetozen, eta, 15.000etan, madrildarrak. Era horretan ezin duzu oraingo sukaldaritza egin. Platerak apain jarri... Etxean egindako postreek ere denbora behar dute», dio.

Kaiak 70 pertsonarentzat lekua du eta Kaipeko terrazan 50 sartzen dira. Patxada eta pribatutasuna eskaintzen zaio gaur egun bisitariari. «Kaipen jantoki pribatua egokitu genuen duela bi urte. Lehen 70 pertsona sartzen ziren, orain 25. Zerbitzua eta janaria hobetzeko ahalegina da. Platerak eta postreak hobetzen badituzu, hori kopuru handian egitea zailagoa da».

Bezeroen profila azaldu digu. «Urritik apirilera bitarte hemen inguruko jendea dator: astelehenetik ostiralera enpresak, larunbatean lagun taldeak eta igandetan familiak. Maiatzetik urrira atzerritarrak gehitzen dira; amerikarrak, errusiarrak eta japoniarrak gehienbat. Asteburuetan eta zubietan, berriz, kataluniarrak», kontatu du.

Bezeroek, iritsi, eta etxean bertan egindako hegaluzea izaten dute zain. «3.000 kilo hegaluze sartzen dugu latan urtean. Ez dugu saltzeko egiten, bezeroari datorrenean eskaintzeko baizik. Etxean egindakoa bezalakorik inon ez», esan du Igor Arregik agurtu aurretik. •

Igor Arregi, Kaia-Kaipe
jatetxeko bodegan.
Andoni CANELLADA |
ARGAZKI PRESS

xole.aramendi@gaur8.info

«Pozikitivity? Negartibility!»

Galder
Gonzalez

Bai! Pozik egon behar dugu! Alai. *Molatu* egin behar dugu. Izan ere, 23 urte bete nituen arte mediku euskaldunik ez izatearen arazoa nire negatibitatea omen zen. Noski, karre-ra euskaraz egiterik ez izatea ere nire errua izan zen, ez nengoelako pozik, ez nuelako behar beste *molatzen*. Polizia kolonialak gazteleraz hitz egiten dute, gauzak ez dizkiegulako irribarre batekin esaten. Eta noski, euskara prestigiatu behar omen dugu; arazoa gurea da, euskaraz txorradak baino ez ditugulako esaten.

Benga! Egin dezagun irribarre. Izan gaitezen *poziktive*. Baina ez zait irribarrea ateratzen: Uriarte sailburuak dio hemen-dik hiru urtera 16 urteko gaztetxo guztiek euskara jakingo dutela, baina horretarako ez dute A eta B eredua deuseztatuko. Jarraituko dute irakasle erdaldunak hezten unibertsitate publikoan. Jarraituko dute gaztelera gauza serioetarako erabiltzen eskoletan. Ez dute murgiltze eredurik jarriko, ez dute ezer ere egingo frakaso hutsa izan den ereduaren politika albo batera uzteko.

Benga! Egin dezagun irribarre. Bitartean Uriarte sailburuak eta Urkullu lehendakariak LOMCE legea aplikatuko dute, antza orain konturatu direlako derrigortuta daudela hori egitera. Berdin dio gehiengoak hala nahi ez izatea, aplikatuko dute eta guk irribarre egin eta polito hitz egingo diogu Werti.

Noski! Arazoa ez da Zumaian pediatria erdaldun elebakarrak kontratatzea. Edo Hezkuntza Ordezkaritzako langile batzuek euskaraz ez jakitea. Arazoa gurea da.

Pozikitivity? Egoerak negargurea ematen du: *negartivity!* «*Háblame con mayor educación, vasquito de mierda*». •

SARE @ N

EUROPA Europako nabigatzaileetako hitz bilatuenetakoak:

> Tronuen jokoa

Erresuma Batuko Isabel II.a erregina “A Game of Thrones” (Tronuen jokoa) telesail entzutetsuaren grabazio estudioetan izan da aste honetan. Zehazki, Belfastera bertaratu zen, Pain Hall egoitzan grabatzen ditu-eta HBO kateak telesaileko pasarte asko. Erregina aktoreekin berbetan aritu zen, eta, hauek, telesaila Ipar Irlandako ekonomian izaten ari den eragin positiboa aipatu zioten. Bisita honek iruzkin asko eragin ditu sare sozialetan, eta, antza, erregina Westerosko burdinazko tronuan jesarrita ikustea zen askoren nahia. Isabel II.a, baina, ez zen errege makiavelikoen eserlekuan eseri, horrek fotomuntaien arrakasta ekidin ez badu ere. George R.R. Martinen eleberrian oinarritutako telesaila da “A Game of Thrones”.

> Hiri inteligentea


Hiri inteligenteak teknologia berriak bere biztanleen bizi kalitatea hobetzeko erabiltzen dituzten horiek dira. Joan den martxoan, Bartzelona hautatu zuten Europako berrikuntza hiriburu, eta, izendapenarekin batera, 500.000 euro eskuratu zituen Kataluniako hiriak Europako Batzordearen eskutik. Bartzelonako Udaleko ordezkari Manuel Valdesek hainbat produkturen erabilera aldatu egin dela defendatu zuen Bruselan, eta autoak jarri zituen adibide. «Behar duzun unean erabiltzearekin nahikoa da egun, eta, parteka badezakezu, eraginkorra goa da», azaldu zuen. Auto elektrikoek hil ala biziko garrantzia dute hiri inteligenteetan. Orain erronka kontsumitzen duten energia balia dezaketen autoak sortzean da.

> Hozkada

Golez gainera, bestelako espektakuluek ere oihartzuna lortu dute Brasilgo Munduko Kopan. Uruguaiako futbol selekzioiko Luis Suarezek Giorgio Chiellini italiarrari egindako haginkadak, adibidez, mundua zeharkatu eta sare sozialak sutu ditu. “Kanibal” traola edota Liverpooloko jokalarari honen karikatura neurrigabeak bolo-bolo dabilta Twitter eta Facebook sare sozialetan. Honakoa ez da gainera, Suarez lehen haginkada, Chiellinirekin hiru baitira jada Suarez amorrua jasan duten futbolariak. FIFAk bederatzi partidako zigorra ezarri eta lau hilabetez nazioarteko lehiaketetan parte hartzea debekatu dio. Liverpool Luis Suarez egungo taldea ere kezkatuta dago uruguaitarren jarrerarekin.

> MACHO

Atenaseko DESTE Fundazioak “MACHO” goiburua duen erakusketa zabaldu du egunotan. Juergen Teller argazkilariaren obra, modelo eta argazkilariek paperak trukatzearen ondorio da. Orsay Parisko museo ezagunean gizonen biluziak oinarri hartuta egindako erakusketan du iturburu izenburuak. Teller berak parte hartu zuen erakusketa hartan, eta oraingoan bere autoerretatuak ere bildu ditu erakusketan. Lehen aldia da Teller beraren irudiak ikusgai direla, eta, dirudienez, orain dela 25 urte hasi zen bere burua erretratatzeko. Marina Fokidis erakusketaren komisariak azaldu moduan, Tellerren askatasuna da bere obraren ezaugarri esanguratsuena; «argazkilaritzaren mugak ere gainditzen dituen askatasuna», gehitu du.



KUTXATEKA.COM

GAUZA EDERRA DA HONDARTZA, EDO EZ

Gauza ederra da hondartza. Hondarra lotsagabe behatzetan sartzen deneko zirrara, uraren freskotasunak gorputzeko zirrikitu guztiak deskubritzen dituenekoa, lasai etzan eta denborak pisurik ez duela sentitzearen poza... Gauza ederra izan daiteke hondartza, edo erabat kontrakoa. 1950 inguruan Donostiako Kontxako hondartzan pilatutako jende horri guztiari galdetuz gero, zer esango ote zuten? **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXATEKA**

Mikel Olasagasti
Sistema administraria



Berrikuntza beldurgarriak

Izutzeko datuak kaleratu ditu Google etxeak azken urteotan burutzen duen I/O konferentzian: mila milioi erabiltzaile aktibo ditu gaur egun Android plataformak. Iazko konferentzian 536 milioi erabiltzaile aktibo omen zituen plataformak eta urtebetean bikoiztu egin du zifra. Mila milioi horiek azken 30 egunetan mugikorra erabili izana adierazten dute. Aldiz, Android mugikorren kopuruak iazko irailean jo zuen mila milioiko marka.

Zifra erraldoi hauei jarraiki tabletaren merkatuaren %62 duela adierazi du Google erraldoiak, iaz baino %16 gehiago. Euren Play dendatik jaitzitako aplikazioen kopuruak gora egin du eta iaz baino %236 aplikazio gehiago omen daude instalatuta mugikor zein tabletetan. Play Services deritzon aplikazioaren azken bertsioa mugikorren %93an omen dago instalatuta. Play Services delakoari esker jada ez da horren beharrezkoa mugikorra azken bertsioan izatea, aplikazio horrek ahalbidetzen baitu Google beraren zerbitzu berriak erabili ahal izatea. Aldiz, segurtasuna ardatz hartuko bagenu, bidea luzea da oraindik maila on bat lortzeko, milioika terminal daude eta munduan zehar inolako segurtasun eguneraketarik gabe.

Google aurrera doa merkatuaren tarta zati osoa jateko gogoz, eta ez du gelditzeko asmorik. Android One ekintza jarri du abian, fabrikatzaileek Android sistema eragilearekin bateragarriak direla esateko bete beharko duten software eta hardware gutxiengoa zehaztuko duena. Horren emaitza zuzena 100 dolar azpiko kalitatezko mugikorrak izango dira, Indiako merkatuak.

Euren Chromecast gailuak, telebistari atxikita zerbitzu gehigarriak ematen dituen gailua, astetik atera %40 erabiltzaile gehiago omen ditu. Hortik etorriko da AndroidTV sistemari ere beste buelta bat ematea, noizbait arrakasta izango duela-

koan edo. Hirugarren aldia da jada produktu bera iragartzen dutena.

Aurkezpenak beste bi plataforma ere plazaratu ditu. Batetik Google Fit delakoa, mugikor zein beste motako gailuen bitartez gure osasuna kontrolatzeko plataforma, eta, bestetik, Android Auto, autoetan erabili ahal den sistema integratua. Proiektu bakoitzak lantzen duen alorreko fabrikatzaile eta marka garrantzitsuenen babesa du.

Oraindik ere monopolioz hitz egiten ez bada ere, ez da askorik falta nire uste-tan. Apple etxeak bere merkatua mantentzeko zailtasunak dituela dirudi, eta lehena izateak zekartzan berrikuntzak jada ez dira lehen modukoak, ia dena ikusita baitago dagoeneko. Apple etxearen prezioek, gainera, diruz ondo ez dabilzan balizko bezeroak zuzenean alboan uzten dituzte. Modelo zaharrak prezioz jaisteak lagundu die, baina jakin ez dela aukera oso interesgarria, luzera begira behintzat. Mozilla fundazioko ki-deak, aldiz, FirefoxOS sistemaren 2.0 ber-

tsioa kaleratzeko azken ukituak ematen dabilta. Hasierako bertsioetatik asko aldatuta, hobera noski, euskaraz erabil daiteke piztu bezain laster. Fabrikatzaile gehiagorekin tratua lortu ostean, sistema hau erabiltzeko aukera gehiago izango da. Interesgarria oso India bezalako merkatuetarako ateratzekotan diren 25 dolar baino gutxiagoko mugikorrak. Libre, merkea eta toki bakoitzera moldatutako sistema, apustu paregabea; hori bai, emaitzak ikusi behar.

Baina izan Android, iPhone edo FirefoxOS, berdin zaio Google etxeari zein plataforma erabiltzen den euren zerbitzuak erabiltzen diren bitartean. Hor dago benetan dirua eta merkatua, informazioa eta pribatutasuna. Bilaketak, posta elektronikoko mezuak, nori deitzen diogun eta nork deitzen gaituen, gure kontaktuen zerrenda eta beste hainbat datuen artean, orain gure gidatzeko trebezia eta osasunaren berri izango dute. Laster Osakidetzara iritsi orduko gure diagnosis eginda izango da, denbora kontua besterik ez da. •



Gaur egun mila milioi Android gailu baino gehiago daude Internetera konektatuta, iazko bikoitza. GAUR8

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:


1,5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



Harpidetu • 11 ale 1,5€ urtean • www.zazpihaizetara.com

